



ALBOAN



Herritartasunetik hiritartasunera eta hiritartasunetik herritartasunera.

Ibilitako bidea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Giza Eskubideetarako, Enplegarako eta Gizarteratzeko Departamentua
Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GABETAKO ZABALA
Gobierno Vasco- Euzko Jaurlaritza
Gipuzkoan Lan-aldaketarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES
Departamentu de Auzolan Sozialak
Dirección de Cooperación al Desarrollo

Egileak: **ALBOAN** Deustoko Unibertsitatearekin
koordinazioan.

Koordinatzailea: Concha Maiztegui Oñate.

Aholkulari taldea: Cristina de La Cruz, Felipe Gómez
Isla, Rosa Santibáñez Gruber, María Silvestre.

Kaleko lana: María Lezaun Tola,
Raquel Rodríguez Álvarez.

Itzulpena: Elhuyar.

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimatzen du: Lankopi, S.A.

Lege-Zenbakia: Bi-2610-06



0.	Ibilbidearen aurkezpena	5
1.	Bideen elkargunea, herritarren elkargunea	9
2.	Bide bat edo gehiago, hiritartasun bat edo gehiago	13
3.	Ibiltaria: herritarren eskumenak	23
4.	Hiritartasunean ibili eta hezi	29
5.	Bideko hainbat mugarri	45
6.	Etorkizuneko ibiltarientzako argibideak	79



O.

Ibilbidearen
aurkezpena



80ko hamarkadatik, hiritartasun-kontzeptuari buruzko eztabaida politiko eta sozial handi batekin batera, nazioarteko erakundeek, instituzio publikoek, unibertsitateek, ikastetxeek eta komunikabideek arreta handiagoa jarri dute **hiritartasunerako hezkuntzaren arloan**.

Fenomeno hori azaltzeko, pentsaera politikoaren eta diziplina sozialen barne eboluziora eta arrazoi politikoetara (desberdinak, eremu geografikoaren arabera) jo behar da –sozialismoaren krisia, nazionalismoen suspertzea, Ongizate Estatuaren desagitea– (Pérez de Ledesma, 2000). Zailtasunek eta krisialdiek ere zerikusi handia dute. Hainbat **faktore sozialek** ere eragin dute horretan: bortizkeriaren hazkundera ikastetxeetan, arrazakeria eta xenofobia Europako zenbait herrialdetan, herritarren parte-hartze eta interes urria bizitza publikoan, desberdintasunen hazkundera, teknologia-arraila, gizartearen eta familiaren egonkortasuna apurtzen duen giza konplexutasuna, etab. Horiek guztiek, eta beste hainbatek, eskema zaharren haustura dakarte, baita zalantza-sentsazioa eta nortasun egonkorraren galera ere (Giddens, 1993).

Instituzio politikoetatik urrun sentitzen diren eta jarduera politiko eta instituzionalean konfiantzarik ez duten hainbat herrialdetako eta gizartetako pertsonak duten joera dela esan daiteke (Bartolomé eta Silvestre, 2004; Subirats, 2005).

Egoera hori ikusirik, **nabarmena da herritarren artean eginkizun publikoekiko ardura sortzeko beharra**, eszeptizismoa gainditu eta **gizarte konplexu batean parte-hartzeko beharrezkoak diren eskumenak beregana ditzaten** (Europako Kontseilua, 2004).

Hartara, “irudikatutako hezkuntzaren” narratiba moderno handietako bat bihurtu da herritarren hezkuntza, eta horrek erakusten du gizarte eta bizitza duinago baterako hezteko utopiara doan bidea (Gimeno, 2003: 25).





1.

Bideen elkargunea,
herritarren elkargunea




Europako herri askotan eztabaidatu da hiritartasun-kontzeptuari buruz, baina, momentuz, ez da homogeneizatu ez edukietan ez eskola-curriculumean txertatzeko moduetan. Adibidez, Finlandian edo Espainian garatzen ari diren tesuinguru multikulturaletan, balio eta berdintasun gaineko hezkuntza-gaiak ditu ardatz eztabaidak. Frantzian, *Education civique, juridique et sociale* (ECJS) izeneko ikastaroa ematen da. Egungo gai politikoei buruzko eztabaida nabarmentzen du ikastaroak. Erresuma Batuan, nahitaezko ikasgaia da 2002ko irailetik hiritar-heziketa bigarren hezkuntzan, eta gomendatua lehen hezkuntzan. Horrelako ikasgaien beharra beste hainbat herrialdetan ere eztabaidatu eta ezarri da; esate baterako, Australian, Kanadan eta Estatu Batuetan (Berg, Graeffe eta Holden, 2003; Kerr, 1994).

Pixkanaka, gai horri buruzko eztabaidek irakaskuntza ez-formalaren eta helduen irakaskuntzaren esparrua ere hartzen dute hiritar-hezkuntzarako eremutzat. Eboluzio hori azaltzeko, honako bi arrazoi nagusi hauek nabarmen daitezke:

- hezkuntza-proiektuak ikastetxeetatik (*life wide learning*) eta eguneroko bizimodutik kanpo garatzea ahalbidetzen du irakaskuntza ez-formala txertatzeak (Europako Kontseilua, 2002).
- bizitza osoan ikastea eskatzen duen (*life long learning*) prozesua da hiritartasuna. Irakaskuntza-proiektu asko pertsona helduen irakaskuntzaren bidez gauzatzen dira (Boggs, 1991; Bîrzéa, 2000; Europako Kontseilua, 1999; 2002; EAEA, 2004; Medel-Añonuevo eta Mitchell, 2003; Osler, 2001).

Alderdi horiek guztiak aintzat hartuta, hiritartasun-heziketan sakontzeko ibilbide bat aurkeztuko dugu. Bideen elkargune batetik abiatzen da ibilbidea. Gaur egungo egoera eta hiritartasunaren adierak edo maila teorikoan agertzen zaizkigun bideak elkartzen dira bidegurutze horretan. Hortik, hiritarren eskumenen proposamenak, irakaskuntza horren sustapenerako pertsona edo instituzio nagusiek egindakoak, zehazten saiatuko gara.



Teorikoagoa den aurkezpen horren osagarri gisa, gurekin lanean ari diren taldeak, pertsonak eta esperientziak aurkeztuko ditugu, guztiak ere gurekin dabiltzanak ahalegin horretan, munduarekin eta tokatu zaien egoerarekin konpromisoak hartzen dituzten herritarrak heztea alegia. Eta, azkenik, eguneroko esperientziak zehaztutako hausnarketa teorikoen bidez, elkarrekin ibili behar dugun bide honetako ibiltarientzako argibideak aurkezten ausartuko gara.

12





2.

**Bide bat edo gehiago,
hiritartasun bat edo gehiago**



Egoera sozial, ekonomiko, politiko eta kultural jakin batzuetako kontzeptu historikoa da hiritartasuna. Hortaz, **haren esanahia ere aldatu egin da**, gizakien beharrak eguneratu ahala eta giza-eskubideak formalki aitortuz geroztik (Gimeno, 2003).


Eredu klasikoan, nagusiki, estatustzat (gizabanakoaren eta Estatuaren arteko kontratu batean oinarritutako **eskubide eta beharren multzoa**) eta rol sozialtzat (nortasun pertsonalarekin lotua) hartzen zen hiritartasuna. Definizio klasikoaren arabera, *“komunitate bateko eskubide osoko kideei ematen zaien estatusa da hiritartasuna”*. *“Horrek dakartzan eskubide eta betebeharrei dagokienez, onuradunak berdinak dira”* (Marshall eta Bottomore, 1999:37). Marshallek komunitate bateko pertsonen arteko berdintasuneko oinarri bat aitortzen du, nagusiki hiru osagai hauen arabera: zibila, politikoa eta soziala. Bere iritziz, hiritartasunaren aurrealdintza da Estatuko kide izatea.

Hori dela-eta, **eskubide sozial eta ekonomikoen hornidurak** hiritartasun-kontzeptuarekin bat egin du, batez ere Europako estatuetan (**ongizate-estatu**).

Bestetik, azken urteotan **proiektu neoliberalak** kostu sozialak murrizten saiatu dira, eta aldatu egin dute kolektiboen arteko harremana. Hiri- eta familia-alorreko erantzukizunak azpimarratze horrek (Gamarnikow eta Green, 1999) eragin kaltegarria izan du hiritartasun-kontzeptuak, eskubide politiko eta sozialak kentzen baitzickio.

Horren aurrean, **errepublikanismo modernoak** –Hanna Arendtek jarduera publikoaren onurez eta demokrazia parte-hartzailearen alde egindako tesietan oinarrituta– **hiritartasunaren praktika** aldarrikatzen du, eta dio komunitatearekiko **eginkizunak ez betetzeak** erabat **osatu gabeko izaki** bihurtzen duela pertsona.

Hortaz, *“eskubide berberak aitortzearen egokitasunari buruzko adostasuna ez da izan garrantzitsuena, itxura denez, baizik eta ez aitortzearen bidegabekeriari buruzko desadostasuna, gizabanakoek eta gizabanako-taldeek eragina”* (Muguerza, 2005:16).



Europako Kontseiluaren arabera (2002, 85. orr.) gizabanakoaren eta Estatuaren arteko harremanetik azaldutako hiritartasun-kontzeptu zaharra ordeztu egin dute **hiritartasun berriek (indibidualagoak, arinagoak eta irakaskuntza ez-formaleko testuinguruetan sortuak).**

Botere publikoek euskarri zituzten esparru produktibo, sozial eta familiarretan izandako aldaketa sakonak aztertuz gero, oinarri guztiak ahuldu direla ikusten da, erakundeak zatitu egin direla eta Estatuak garrantzia galtzen duela goitik (nazioz gáindiko erakundeak), behetik (deszentralizazio-prozesuak) eta alboetatik (zerbitzu publikorik gabeko kudeaketa, GKEak...) (Subirats, 2005). Nortasun pertsonalaren sentimenduari eragiten dioten hiritartasun-jardueren aldaketak testuinguru horretan izan dira (Bartolomé, 2005; CEPAL, 2000; Cice, 2001, Informazioaren Gizarteari buruzko Mundu Goi-bilera, 2005; Giddens, 1993):

- Aldaketak ongizate-gizartean, eta gizartearen zatiketa-prozesu gogorrak.
- Orain arteko sekula ikusi gabeko populazio-lekualdatzeak (turismoa, migrazioak, errefuxiatutako pertsonak, etab.).
- Emakumea lan-merkatuan sartzea eta horrek genero-roletan eta hain zehaztuta ez dauden estereotipoetan eragindako aldaketak.
- Iparralde eta Hegoaldearen arteko desberdintasunen sakontzea, lehenik zeuden lubakiak sakonago egiten dituena.
- Globalizazio eta mundializazio prozesua. (Nazio-estatuaren eskumenak murrizten ditu, eta merkatuaren ahalmenak indartzen).
- Kontsumo-kultura (gizakion alderdi indibidualistak areagotzen ditu).
- Kontsumitzailea eta haren eskubideak berriro definitzea.
- Erreferentzia kulturalen aniztasuna (norberaren gurariak pertsonalizatzeko aukera).
- Diruaren, irudien eta sinboloen zirkulazio azkarra (nazioen arteko mugak desegin egiten ditu).
- Berdintasun handiagoa informazioaren erabileran eta gune publikoetarako sarbidean, alde handiak badaude ere kolektibo batzuetatik besteetara.

- Informaziorako sarbide unibertala, nonahikoa, bidezkoa eta erraza eragozten duten oztopoak.
- Komunikabideen zeregina(alor publikoaren irudia aldarazi dute).
- Tradizioaren eragin txikiagoa eguneroko bizimoduaren eta nortasun pertsonalaren erakuntzan (tradizioa ez da jada horretarako iturri nagusi).

Hiritartasunaren adiera berriek **prozesu soziala** azpimarratzen dute, eta aipatutako elementuei beste bat (osagarria eta funtsezkoa) eransten diete, beti ez bada ere: **komunitateko partaide izatearen sentimendua**.

Testuinguru horretan sortzen da **barneratzeko** terminoa, hiritartasunari lotua. Horren arabera, hiritartasunerako sarbideak hasierako egoera legal bat baino gehiago eskatzen du. Izan ere, gehiengoa duten taldeen jarrerak eta jokabideek gutxiengoen barneratze-sentimenduetan eragin dezakete. Azken batean, **agintaritza politikoaren arabera hiritartasun-definizioaren ordez beste hiritartasun-eredu bat sortzen ari da, alde soziala garatzen duena (jendea beste jende batekin elkarbizitzen, hainbat baldintza eta egoeratan)** (Audigier, 2000; 9. orr.).

Irizpide horiek guztiak adierazten dituzte, bada, 'hiritartasun' hitzak eta haren adjektibazioek, bakoitzak asmo jakin batekin. Honatx horietako batzuk:



Egilea: Europako Kontseilua.

Terminoak: Hiritartasun demokratikoa.

Definizioa:

"Gizarte batean modu zehatz batean" bizi diren pertsonak dira. Berekin dakar horrek beste hau: "pertsona batek gauzatzen dituen ekintzen multzoa, komunitatearen (lokala, nazionala, eskualdekoa eta nazioartekoa) bizitzan eragina dutena. Horretarako, elkarrekin aritzeko leku publiko baten beharra dute herritarrek" (Europako Kontseilua, 2003, 2. orr.).

Gakoak:

- Estatus sozial, politiko eta legala,
- zenbait eskubide eta erantzukizun dituen,
- estatuak bermatua.

Egilea: UNESCO.

Terminoak: Hiritartasuna eta bake kultura.

Definizioa:

Hezkuntza, giza eskubideak eta hiritartasunaren konbinazioa, justizia eta oinarrizko askatasunen bidez bakea sustatzeko diseinatutako sistema baten nahitaezko osagaietan eratu dira.

Egilea: Lasse Siruala (2005).

Terminoak: Herritar aktiboak.

Definizioa: Bizitza publikoan jarduten dena.

Gakoak:

Oinarrizko hiru ezaugarri

- 1. Inklusioa:** Aipatutako beste helburuetako bat integrazio soziala da (Osler, 2001). Kohesio sozialarekin lotutako helburu orokor bat da (Crick, 1998). Aurrebaldintza modura, pertsonen errealitatea ezagutu behar dute, eskubideak eta aukerak, beren gaitasunak garatu eta hiritartasunaren zenbait esparrutan parte-hartzeko aukerak izan.
- 2. Parte-hartzea:** Komunitateko kide sentitzeak, inplikazio eta erantzukizun pertsonalek eta kanpoko zenbait baldintzak eragiten dute ere.
- 3. Eragina:** Parte-hartzearen eta emaitzak lortzearen arteko zuzeneko lotura. Horretarako, beharrezkoa da politika publikoen eta bestelako hezkuntza-eragileen laguntza

Egilea: Eurydice (2004) eta Europako Kontseilua.

Terminoak: Herritar arduratsuak.

Definizioa: Eskubideak eta betebeharrak, balio sozialak, demokrazia eta giza eskubideak ezagutzeaz eta erabiltzeaz arduratzen diren herritarrak.

Gakoak:

Zenbait gizarte-balioetik hurbil dago kontzeptu hori, hala nola, demokrazia, giza eskubideak, parte-hartzea, kohesio soziala, elkartasuna eta aniztasunarekiko jasamena. Eskubide eta beharren ezagutzarekin lotutako hainbat gai ditu.

Egilea: Kubow, Grossman eta Ninomiya.

Terminoak: Hiritartasun multidimentsionala.

Definizioa:

Pertsona guztiek beren komunitateetako bizitza sozialean eta ekintza publikoetan parte hartzea.

Gakoak:

Hiritartasunaren lau dimentsioak, eta goian aipatutako ezaugarriak (1. grafikoa).



1. grafikoa. Hiritartasun multidimentsionaleko eredua. Iturria: Kubow, Grossman eta Ninomiya (1998, 115. orr.).

Konpromiso sozial eta etikorako gaitasun pertsonalaren garapenari dagokio *alor pertsonala*. Indibidualtasuna eta erantzukizun soziala ditu ezaugarri. Horretarako, handitu egin behar da pentsaera kritiko eta sistematikoko gaitasuna, hango eta hemengo kulturak ulertzeko ahalmena, arduren banaketa eta gatazkak modu ez-bortitzez konpontzeko gaitasuna, baita ingurumena babesteko borondate ona ere.

Pertsona guztiok gizartean garatzen garenez, ez dago hiritartasunik gizarterik gabe. Hiritartasunaren *alor sozialaren* arabera, ezaugarri pertsonalak funtsezkoak diren arren, ez dira berez nahikoak hiritartasun multidimentsionala garatzeko.

Hona hemen zer den *alor espaziala*: herritarrek hainbat komunitateetako kideztat hartzen dute beren burua (tokiko komunitateak, eskualdekoak, naziokoak, nazioartekoak...). Hiritartasun multidimentsionalak eskatzen du zenbait mailatan (tokian tokikoa, nazioartekoa...) bizi eta lan egiteko gaitasuna. Elkarrekin lotuta daude, izan ere, gaitasun horiek.

Denbora-kontzeptuaren ikuspegi orokorra ematen du denboraren dimentsioak. Denboraren ikuspegiak garrantzi handia ematen dio iragana gogoratzeari, *alor pertsonal* eta espazialekin lotutako orainaldia eraikitzeko oinarria baita.



3.

Ibiltaria:


herritarren eskumenak



1988an, ikerketa-ahalegin handia egin zen 110 herrialdetan XXI. mendeko herritarraren ezaugarriak zehazteko. Cogan eta Derricottek (1998) zuzendu zuten taldea (hainbat jakintza-arlotako 26 ikertzaile), eta bederatziko herrialdetako 110 adituren iritziak jaso zituzten: Japonia, Thailandia, Europa (Ingalaterra, Alemania, Grezia, Hungaria eta Herbehereak) eta Ipar Amerika (Kanada eta Estatu Batuak). Horrela adostu zituzten, bada, XXI. mendeko lehen hamarkadetakoko herritarren zortzi ezaugarri:

1. “Gizarte orokor bateko kide gisara arazoak behatzeko eta ebazteko gaitasuna.
2. Beste pertsona batzuekin lankidetzan aritzeko gaitasuna, eta gizartearen barruan norberak dituen eginkizunen eta kezken erantzukizuna bere gain hartzekoa.
3. Kulturen arteko ezberdintasunak ulertzeko, onartzeko, estimatzeko eta toleratzeko gaitasuna.
4. Sistematikoki modu kritikoan pentsatzeko gaitasuna.
5. Gatazkak indarkeriarik gabe konpontzeko borondate ona.
6. Ingurumena babesteko, norberaren bizimodua eta kontsumo-ohiturak aldatzeko borondate ona.
7. Gia eskubideez arduratu eta haien alde jarduteko gaitasuna (esate baterako, emakumeen eskubideak, gutxiengo etnikoenak...).
8. Politikan parte hartzeko borondate ona eta gaitasuna (herrian, herrialdean eta nazioartean)” (Kubow, Grossman eta Ninomiya, 1998, 11. orr.).

Bestalde, beste idazle batek –Crick (1998)– beste herritar-eredu batzuetan aipatu-tako alderdi nagusiak jasotzen ditu (Bartolomé, 2002a; Crick, 1998; Lastrucci, 2002, 2003; Remy, 1998; Osler, 2000) “Herritarren eskumenen kubo” deritzon honetan.



2. grafikoa. Hiritar-heziketaren kubo. Iturria: Crick (1998).

Nolanahi ere, proposamen gehienek diote hauek direla **hainbat kulturaz osatutako hiritartasunaren oinarriko eskumenak**:

- **Eskumen kognitiboak**: hasteko, ikuspegi zabal batetik ezagutu behar dira **eskubideak eta betebeharrak**. Hortaz, atal honetan gai oso ezberdinak jorratzen dira; esaterako, sistema politikoa edo kultura. Legeak ezagutzea ere sartzen da hor, beste batzuetatik babesteko herritarrak duen tresna baita (Europako Kontseilua, 2000). Horretarako, informatu ere egin behar

dira, bai lege-arauei bai bizikidetzarauei buruz, bizitza sozialean parte-hartzeko. Mundu globalizatuan, beste jakintza batzuk ere behar dira: **ekonomiari buruzkoak** (ekoizpena, kontsumoa, etab.), **ingurumenekoak**, baita gure gizartean bizi diren **beste kultura** batzuei buruzkoak ere (Ross, 2001; Banks, 1997). Beraz, pertsona eta kultura ezberdinen arteko harremani eragiten dieten alderdi guztiak hartu behar dira kontuan, giza eskubideen ikuspegitik betiere.

- **Alderdi etikoa eta axiologikoa:** alderdi afektiboa adierazten du, zerbaiten partaide izatearen sentimenduari lotua. Gai politiko eta geografikoekin zerikusia du, ez soilik **identitate lokalarekin**, baizik eta **beste talde batzuei** –lokalak zein globalak– **lotutako identitatearen sorrerarekin** ere (Intermonoxfam, 2005; Roland-Levy & Ross, 2003). Hauexek dira gizabidezko etikaren zenbait balio: **askatasuna, berdintasuna, elkartasuna, tolerantzia, erantzukizuna, errespetu aktiboa, elkarrizketa eta indarkeriarik eza** (Camps, 1993; Cortina, 1999).
- **Jarduteko gaitasuna:** Alderdi honek garrantzia ematen dio **gizarte-prozesuan era aktiboan parte-hartzeari**. Jakintza teoriko hutsetik harago doa, giza eskubideak babestea eta haien alde jardutea baitakar berekin. Hortaz, gaitasun hauek behar dira, besteak beste: **beste pertsona batzuekin bizitzea eta lankidetzan aritzea, gatazkak bizikidetzan demokratikoko printzipioen arabera konpontzea**. Horretarako, beste gaitasun batzuk ere eduki behar dira; esate baterako, **modu sistematikoan eta kritikokoan pentsatzen jakitea** (Cogan eta Derricott, 1999).

¹ Europako Kontseiluaren arabera (2000), hauexek dira hiritarrentzako hezkuntzak jasotzen dituen alderdiak:

- **Alderdi politikoa:** erabakitze prozesuan parte-hartzea eta aginte politikoa erabiltzea.
- **Alderdi legala:** arauaren legea, hiritar izateak ematen dituen eskubide eta betebeharren kontzientzia hartzea.
- **Alderdi kulturala:** dibertsitatea eta oinarrizko balore demokratikoak errespetatzea, herentzia historikoa partekatze beharra eta kulturen arteko harreman baketsuetan laguntzea.
- **Alderdi soziala eta ekonomikoa:** bereziki, pobreziaren eta bazterketaren aurka borrokatzea. Horretarako, lan egiteko eta komunitatea garatzeko modu berriak pentsatu behar dira, eta gizarte-erantzukizun korporatiboa ere kontuan hartuko da.
- **Alderdi europarra:** europako kulturaren batasunaren eta dibertsitatearen kontzientzia hartzea, europako testuinguruan bizitzen ikastea, europako erakundeak eta eskubideak zein diren jakitea.
- **Alderdi globala:** elkarren arteko mendekotasuna duen onarpen eta sustapen global solidarioa.



4.

**Hiritartasunean
ibili eta hezi**



Funtsezko hiru muga ditu herritarrak hezteko proposamenen ikerketa eta azterketak (Audigier 2000, 10. orr.):

1. **Hiritartasuna terminoaren beraren konplexutasuna** (ikuspegi orokorra eskatzen dute haren heziketa-proiektuek).
2. Heziketa-prozesu sakon baten menpe daude hiritartasuna zein hiritarren hezkuntza. Prozesu horrek bizitza sozialaren alderdi guztiei eragiten die. Beraz, **arlotan ezin dira mugatu**, zenbait arlo ahazteko edo berriak sortzeko arriskua baitago, egileen subjektibotasuna dela eta.
3. **Esparru horren ikuspegi idilikoa aurkezteko arriskua** dago, baita hara sartzeko baldintzak argi ezarri gabe esparruari buruz etengabe hitz egitekoa ere. Beste era batera esanda, badago aldea ikuspegi teorikoaren eta heziketa-proiektuak testuinguru jakin batzuetan aplikatzeak dakarren alor pragmatikoaren artean. Batzuetan, alderdi praktikoa (ezinbestekoa alor horretako jendea aztertzeko) ez da bateragarria aurrekoarekin.

Hori dela-eta, hiritar-heziketaren hainbat definizio azalduz hasiko gara:



Egilea: UNESCO.

Terminoak: Hiritartasuna eta bake kultura.

Definizioa:

Justizia eta oinarrizko askatasunen bidez bakea sustatzeko diseinatutako sisteman ezinbesteko elementua da hezkuntzaren, giza-eskubideen eta hiritartasunaren arteko elkarlana.

Egilea: Europako Kontseiluko Hezkuntza Ministroen Kontseilua (2000).

Terminoak: Hiritar-heziketa.

Definizioa:

Bizitza osoko heziketa-prozesua da, jakintzei, jokabideei, balioei eta gizarte demokratikoan jarduteko gaitasunei garrantzi bera ematen diena. Erronka garrantzitsua da, autonomia, sormena, pentsamendu kritikoa, eskubide eta erantzukizunen kontzientzia eta lantaldeetan, negozioetan eta elkarrizketetan parte-hartzeko gaitasuna eskatzen duelako.

Egilea: Europako Kontseilua.

Terminoak: Hiritar-heziketa demokratikoa.

Definizioa:

Bai gazteei bai jende helduari demokraziaren eginkizunetan aktiboki jarduten eta gizartean dituzten eskubide eta ardurak erabiltzen laguntzeko sortutako zenbait jarduera eta eginkizun.

Lorpenak:

“Bizitza osoan jarraitzen den ikaskuntza-esperientzia da eta hainbat testuingurutan garatzen den parte-hartze prozesua: familian, hezkuntza-erakundeetan, lantokian, erakunde profesionalen, politikoan edo gobernuz kanpokoan bidez, tokiko komunitateetan eta aisiaren bidez, kultur jardueren bidez, komunikabideen bitartez, baita ingurumen naturala edo pertsonen erabilerak babesteko edo hobetzeko jardueren bidez ere.

Bizitza publikoan eginkizun aktiboa edukitzeko gaitasuna ematen du, baita norberaren eta gizartearen etorkizuna arduraz partekatze ere, giza eskubideen kultura bat ezartzen laguntzen du, eskubide horien errespetu osoa bermatuko duena eta eskubide horiek dakartzaten erantzukizunak ulertzen dituen, hainbat kulturaz osatutako gizartean bizitzeko prestatzen ditu pertsonak, eta ezberdintasunaren aurrean jakintzekin, sentsibilitatearekin, tolerantziarekin eta moralarekin jarduteko ere.”

(Europako Kontseilua, 2001)

4.1. Hezkuntza-oinarriak

Delors txostenean aipatutako hezkuntza-oinarriak jasotzen ditu hiritar-heziketak:

- eskubide eta betebeharrak ezagutzea,
- dibertsitate eta kulturartekotasunaren elkarbizitza,
- gizabidezko bertuteak garatzea eta komunitatea egitea/komunitatean parte-hartzea.

Hiru euskarri dituzte printzipio horiek (izaten ikastea, ezagutzen ikastea eta egi-ten ikastea), hirurak ere alor pertsonalekoak. Alor sozialeko euskarri bat ere badago (laugarrena): elkarrekin bizitzen ikastea.

Hiritartasunari eta giza balioei buruzko gaur egungo eztabaidaren zati handi batek esplizitu bihurtzen ditu ikastetxeetan, askotan, curriculum ezkutuan bazter-tuta geratzen ziren eduki eta balioak. Parte-hartzea da gehien aipatzen den gaie-tako bat, eta gatazkatsuenetakoa. Horretaz mintzatuko gara.

Parte-hartzea

Parte-hartzearen printzipioa da hiritar-heziketaren funtsezko osagaietako bat. Prozesu hori bi alderdik osatzen dute: pertsonalak eta sozialak. Honelaxe defini daiteke: *“Prozesu interaktiboa, zeinaren bidez jendeak aldaketa pertsonal eta soziala izaten duen, zeinak beren bizitzetan eta bizi diren komunitateetan eragi-ten duten erakunde eta elkarteetan nolabaiteko eragina lortzeko ekintzetan parte hartzeko gaitasuna ematen dien”* (Gyamarti, 1992).

Bi helburu hauek izan behar ditu parte-hartzeak:

- erakundeen egitura eta prozesuak aldatzea, kide guztien interesetara hobeto egoki daitezen,
- eragin pedagogikoa deritzona, berez baitira eskola bat prozesuaren emaitzak eta emaitza horien atzeraelikadura. Inongo ikaskuntza intelektual hutsak ezin du ordezkatu eskola hori (Gyamarti, 1992).

Halaber, baldintza hauek bete behar ditu:

- *ziurtatu behar du pertsona bakoitzak eginkizun bat hartu ahal duela bere ingurunean, gaitasunak garatu ahal dituela eta garapen horren bidean dauden oztopoak murriztu,*
- parte-hartze prozesua hezkuntza-prozesutzat hartu behar da, eta askotan kontuan hartzen ez diren alderdiak izan behar dira kontuan; esate baterako, talde-lana.
- lan egiteko eta harremanetan jartzeko modu berriak eskatzen ditu, politikariek, teknikariek eta herritarrek batera lan egin ahal izan dezaten (Rebollo, 2002).

Parte-hartze horrek ez du beti indar bera izaten, eta parte-hartzaileek hartzen duten erantzukizunaren arabera ezartzen dituzte parte-hartze mailak zenbait ikerlarik (Díaz Bordenave, 1998; Kaleidos Fundazioa, 2003):

1. **Partaide izatea:** pertsona bat talde bateko parte izatea. Sare edo talde batean sartuz gero, komunikazio-sistema bati lotzen zaio pertsona Sistema horretan, pertsona bakoitza hartzailea eta igorlea da aldi berean.
2. **Parte sentitzea:** ezinbestekoa da sentimendu hori pertsonen autonomiarako. Pertsona harreman sozialetan zuzenean sartzen da horri esker.
3. **Parte hartzea:** talde edo komunitate batean funtzio bat izateko aukera egotean datza, modu iraunkorren eta erantzukizun eta konpromiso maila nahikoarekin.
4. **Parte edukitzea:** *ekintza posible, etengabe eta koherente batzuk zuzenean egitean datza, taldean erantzukizun bat dakartenak. Hori dela-eta, agintea beste era batera banatzen da.*

4.2. Hiritar-heziketaren helburuak

Herritarren demokraziarako heziketa garatzeko nahia adierazi du Europako Kontseiluak (2001). Demokrazia hori herritarren eskubide eta betebeharretan eta gazteek gizartean duten parte-hartzean oinarritzen da, bi mailatan: eragiketa-mailan eta politikoan.

- *“Gizon-emakumeei tresnak ematen dizkie, bizitza publikoan gizartearen parte aktibo izan daitezen eta haien etorkizuna eta gizartea arduraz osa ditzaten.*
- *Giza eskubideen kultura bat ezartzea proposatzen du. Horretarako, giza eskubideekiko errespetua bermatu behar da.*
- *Hainbat kulturaz osatutako gizarte batean bizitzeko prestatzen du jendea, baita bestelako jakintza edo iritziekin, tolerantziaz eta moralitatez bizitzeko ere.*
- *Gizarte-kohesioa, elkar ulertzea eta elkartasuna sendotzen ditu.*
- *Adin-talde eta gizarteko sektore guztiak hartu behar ditu kontuan.”*

Gizartearen ikuspegitik, epe luzera, gizarte demokratikoak sendotzea da herritarrek heztearen helburua, eta gizarte tolerantia eta askeagoa eraikitzea (Europako Kontseilua, 2005). Beraz, eskubideen parekotasuna edo berdintasuna sustatu eta gizarte kohesioa hobetu behar da. Horretarako, pertsona guztien bizi-baldintzak hobetu behar dira, eta, bereziki, gizartea banantzen duten oztopoak kendu behar dira.

Europako Batasunean helduak (G taldea) hezten aditu direnek azpimarratzen dutenez, hiritartasun demokratikorako hezte funtsezkoa da hau sustatzeko: *“duintasuna, askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna giza balio unibertsalak, eta demokrazia eta araurako errespetua printzipioak”*.

Hortaz, norberaren helburuak eta gizartearenak elkartzen dira heziketa-prozesuaren une guztietan. Herritar aktibo, arduratsu, kritiko eta kulturantzeko zenbait helburu pertsonal eta sozial garatu ditu Flor Cabrerak (2002). Zenbait helburu pertsonal eta sozial sailkatzen ditu egile horrek, **demokrazia sendotzeko, bazterketaren aurka borrokatzeko, gizarteratzea bultzatzeko eta kulturen arteko elkarrizketa sustatzeko** balio dutenak. Maila berean aipatzen diren arren, aurretiazko beste helburu batzuk dira **gizarte-erantzukizuna, zentzu kritikoa eta dibertsitatea estimatzea**, edo helburu horiek lortzen laguntzen dute.



Honelako hiritartasunaren eraikuntza defendatzen dugu:

tresna izaten lagunduko duena

pertonengan honako hauek sustatzeko:

Aktiboak eta arduratsuak

1. Demokrazia sendotu.
2. Gizarteratzea erraztu eta bazterketaren aurka borrokatu.
3. Gizarte-erantzukizuna sustatu.

- Parte-hartzea balio gisa.
- Giza eskubideen defentsa.
- Espazio publikoan gehiago agertzea.
- Gizabidezko esku-hartzea.
- Gizarte-konpromisoa.
- Pertonaren autonomia.

Kritikoak eta kultura anitzekoak

1. Gure kulturaren ikuspegi kritikoa eduki.
2. Aniztasunari balioa ematea, ondasun publikoa delako.
3. Kulturen arteko elkarrizketa sustatu.

- Gizartea berreraikitzea.
- Aldaketaren eragile izatea.
- Dibertsitateari balioa ematea, gizabidezko balioa delako.
- Kulturen arteko eskumenak.

3. grafikoa. Hiritartasun-proposamena. (Iturria: Cabrera, 2002, 98. orr.)

4.3. Hiritar-heziketaren curriculuma

Heziketa-prozesuaren helburua da gizalegeko kontzientzia duten herritarrak lortzea, tokiko arazoak eta orokorrak norberarenak balira bezala sentitzeko gai direnak, kultura demokratikoa bere egiteko prest dauden pertsonak, eta, beraz, erantzukizun, konpromiso eta nortasun argiak bere egiteko prest daudenak (Camps, 1993). Horretarako, **eskola-curriculumean** kontuan hartu behar dira zenbait **alderdi kognitibo, trebeziakoak eta jokabidekoak, antolakuntzakoak eta metodologikoak**. Hemen aurkeztuko ditugu alderdi horiek.

Hala ere, herritarrak hezteko azterlan eta proposamen askotan gauza bat errepikatzen da; hain zuzen ere, gida-oinarri batzuk proposatzen dira, giza eskubideei buruzko heziketan egiten den bezala. Hauexek dira printzipio horiek: **osotasuna eta zeharkakotasuna** (Gómez Isa, 2000).

Edukiak

Egile askok –Osler-ek eta Starkey-k (2005, 79. orr.) besteak beste– gomendatzen dutenez, **lehen, bigarren eta hirugarren belaunaldiko eskubideak zabaltzeaz eta ulertzeaz** arduratu behar da hiritar-heziketa lehen urrats batean, horixe baita demokraziari eusten dion ardatza eta munduan justizia eta bakea sustatzeko oinarriak ematen dituena. Hori dela-eta, Haurren Eskubideen Hitzarmena funtsezkoa da haurrak eta pertsona gazteak beren eskubideen eta betebeharren jakitun izan daitezen eta eskubide horiek aldarrikatzeko edo erabiltzeko moduan egon daitezen (Osler eta Starkey, 1998).

Gure gizartean, garrantzi berezia ematen zaio bidegabeki ditugun eskubide eta betebeharrak argi identifikatzeari. Horri esker, geure buruari ematen dizkiogun eskubideak eta gure gain hartu behar ditugun erantzukizun batzuk orekatuak izan ahalko dira. Gainera, mugatu egin behar ditugu geuretzat hartzen ditugun eskubide asko, eta guztiak eskubide ez direla onartu.

Halaber, gaur egun erronka dira hirugarren belaunaldiko eskubideak edo **elkartasun-eskubideak**, herritar kosmopolitak sortzen eta hiru ekarpen egiten ari baitira: giza eskubideak unibertsalizatzea, nazio-estatuak ahultzea eta arazo eta irtenbideen arteko mendekotasun globala (García Roca, 2004, 22. orr.).

Nortasun nazionala gordetzeko kezka da hiritartasunkontzeptuaren gaineko arduraren beste ezaugarri bat. Askotariko nortasunak onartzea da gaur egungo erronka –askotan, nortasun hibridoak–, eta nortasun hibrido horiek sortzen lagun-

tzea da hezkuntzaren eginkizuna. Hori dela-eta, programa bakoitzak bere testuingurura egokitu behar du. Nolanahi ere, pedagogiatik, bistakoa dirudi hezkuntza-eredu baten abiapuntua hurbileko talde erreferenteekin identifikatzea izan behar dela. Horren ondoren, beste talde batzuekin identifikatzeko prozesua hasiko da, eta **hiritartasun askotarikoa eta kosmopolita** lortuko da (Osler eta Starkey, 2005).

Trebeziak

Herritarren arteko konpromisoa eta bizikidetzak garatzeko aukerak ematea da hiritar-heziketaren bidez bultzatzen diren trebezia guztien helburua. Beraz, **herritar aktiboak, adituak sortzea da helburua, guztien arazoez arduratzen direnak, eta prozesu sozial eta politikoen garapenean esku hartzea eskatzen dutenak** (Benedicto eta Morán, 2002, 118. orr.).

Horretarako, gaitasun hauek sustatzen ditu hiritar-heziketak, besteak beste:

- **gizarte-trebeziak garatzea,**
- **norberaren trebeziak: jendaurrean hitz egitea, izaera kritikoa...**
- **talde-lanean konfiantza izatea,**
- **giza eskubideak defendatzea eta horren arabera jardutea,**
- **beste pertsona batzuekin bizitzea eta lankidetzan aritzea,**
- **gatazkak bizikidetzak demokratikoaren printzipioen arabera konpontzea,**
- **modu sistematikoan eta kritikoan pentsatzen jakitea.**

Hezkuntza-ikuspegiak **benetako parte-hartzearen** (Hart, 2000) kontzeptuari lotutako herritarren ikuspegia ematea da gaitasunak garatzeko funtsezko osagaietako bat, eta ez parte-hartze erretorikoari lotutakoa.

Esparru horretan, parte-hartze maila txikiak gaintzen lagundu behar du heziketa-prozesuak, eta, gutxika-gutxika, **erantzukizun** maila handiagoa lortu behar du **prozesuan**, duen interesaren eta gaitasunaren arabera. Parte-hartze maila igotzen bada, herritarren eskumenen maila jakin bat eskuratzen da; esaterako, **eskariak adierazteko gai izatea, eskari horien ondorioz sortutako erantzukizunak norberaren gain hartzeko gai izatea.** Horrez gain, gizarte-estatus bat ere lortuko du pertsonak auzoan edo bizilekuan, eta aukera izango du leku horren garapena kontrolatzeko (Europako Kontseilua, 1999).

Edozein parte-hartze prozesu egiteko, gizarteko hainbat eragile harremanetan jarri behar dira eta konpromiso bateratu bat egon behar da.

Edozelan ere, trebezia horiek sustatzeko, gogoan izan behar da ikasketa formala eta ez-formala uztartzen dituen hezkuntza hartu behar dela kontuan, baita eguneroko bizitzako oztopoak gaınditzen lagunduko duten neurri politikoak ere. Esparru formalean, horrelako proiektuek funtsezko aldaketa eskatzen dute hezkuntzaren arloko kulturari, maila guztietan. Horren bidez, harreman esanguratsuak eraikiko dira, arlo publikoan egoten jarraitzeko konfiantza eta borondate instituzionalean oinarritutako harremanak, hain zuzen ere (Morán eta Benedicto, 2000).

4.4. Antolakuntzari buruzko oharra

Europako Kontseiluak (2002) curriculumean hiritarren hezkuntza ezartzea gomendatzen du, bai irakasgai espezifiko gisa, bai zeharkako irakasgai gisa.

Hala ere, Eurydicek (2004) egindako ikerketak erakusten duenez, Europan eta hezkuntza arautuan modu ezberdinetan antolatzen da: alde batetik, ikastaro espezifikoak ematen dira, nahitaezkoak edo hautazkoak; bestetik, beste irakasgai batzuetan txertatutako ikastaroak ematen dira; esaterako, historian edo geografian.

Lehen hezkuntzan, Estonian, Suedian eta Errumanian baino ez da eskaintzen irakasgai espezifiko bat. Gainerako herrialdeetan, beste ikastaro batzuetan txertatuta dago, edo zeharka eskaintzen da. Nolanahi ere, lehenengo adinetan **gizalegezko balioen hasierako kontzientzia** sortu nahi da, eta txikitatik prestatu nahi dira hurrengo etapetarako. Ideia horri jarraituz, haurrak adinez oso txikiak direnean hasten dira Europako curriculum gehienak (Eurydice, 2004, 20. orr.). Bestalde, lehen hezkuntzan garrantzi handia ematen zaio **adin berekoekin eta pertsona helduekin errespetuzko harremanak hasteko eta edukitzeko gaitasunak garatzeari**. Horrez gain, **giza eskubideak, kultura-dibertsitatea, tolerantzia eta konpromisoa** ere modu esplizituan aipatzen dira.

Suedian, Estonian eta Errumanian soilik ematen dira lehen hezkuntzan hiritar-heziketako ikastaroak. Hala ere, txosten horrek berak adierazten duenez, 13 herrialdek baino gehiagok ikastaroak ematen dituzte **bigarren hezkuntzan**. Askotan, zeharkako beste gai batzuekin batera lantzen dira, edo irakasgai-multzo handi baten barruan daude: historia, gizarte-ikasketak, geografia, erlijioa eta hez-

kuntza morala, etika, filosofia, atzerriko hizkuntzak, ingurumena, antzinako literatura, osasun-hezkuntza, etab. Bigarren hezkuntzan, nabarmentzekoa da Suediak (95 ordu) eta Poloniak (81 ordu) proposatutako ordu-kopurua. Kopuruaren aldetik, hurrengoak Finlandia eta Austria dira (50 ordu inguru). Estoniak, Letoniak, Lituaniak eta Errumaniak, berriz, 20 ordu baino gutxiago gomendatzen dituzte. Curriculumetan ezartzen den urte-kopuruari buruz ere ezberdintasun handiak daude.

Hala ere, teoriak dioenez, **heziketa-prozesuak hezkuntza formaleko irakasgaiaren esparrua gaingitu egin behar du, eta ikastetxeen eta eskolako kultura parte-hartzailearen zati izan behar da**. Proposamen horrek zerikusi handia du komunitate bateko taldeen arteko interakzioarekin; besteak beste, ikasleak, irakasleak, familiak eta bestelako gizarte-eragileak (Eurydice, 2004). Hezkuntza formalean, **antolakuntzak ikasleak animatu behar lituzke beren interesak modu antolatuan erakuts ditzaten eta kontsultarako edo erabakiak hartzeko prozesuetan parte-har dezaten** (Eurydice, 2004, 27. orr.). Maila ezberdinak egoteko aukera egongo litzateke bai hezkuntzan (oinarrizkoa, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza edo helduak), bai instituzioetan (eskola, ikastetxea, hiria, eskualdea, herrialdea, nazioartea) zein inplikazioaren aldetik (kontsultatik erabakiak hartzeraino).

Herritarren prozesuetan heztearen esperientzia propioak hartu behar ditu barnean hiritar-heziketaren ikuspegiak. Gehienak hezkuntza ez-formal edo informaleko esperientzietan garatu dira, eta herritarren eskumenak gauzatzen dituzte.

Alde horretatik, zenbait gai garrantzitsu aipatu behar dira:

- Hezkuntzaren esparruan arduraren bat duten pertsona guztiak izan behar lirateke prozesu horretako **eragileak**, hezkuntza formalean zein informalean eta ez-formalean arduraren bat dutenak; beraz, **familia, ikastetxeak, GKEak, tokiko agintaritzak eta komunikabideak**.
- **Irakasleek** funtsezko eginkizuna dute prozesuan; dena dela, ez zaie beti ematen behar bezain beste **laguntza eta trebakuntza** funtzio horiek egiteko (Europako Kontseilua, 2002; Eurydice, 2004).

² Estonia, Polonia, Eslovenia, Errumania, Txekiar Errepublikak, Austria, Letonia, Lituania, Eslovakia, Suedia, Frantzia, Luxemburg eta Norvegia (Eurydice, 2004).

3.3 Metodologia-oinarriak

Hemen aipatuko ditugun faktoreak ez dira eragina izan dezaketen bakarrak, eta, zenbait kasutan, ez dira egokienak, baina ikuspegi orokor batetik, horrelako hezkuntzan eragina izan dezakete:

- **Ikasketa aktiboa:** ekintzaren bidez jakintzak eskuratzeko prozesua. Heziketa-prozesu bat da. Prozesu horretan, ikaslea ikasketa-prozesuaren kide aktiboa da, eta ez soilik jakintzen hartzaile pasiboa. Pertsonak edo taldeek hobeto ikasten dute beren ikasketan modu aktiboan parte-hartzen dutenean. Aukeratutako metodoek pentsatzeko, jarduteko eta hausnartzeko aukera eman behar diete ikasleei. Pertsona osotasunean hartzen du kontuan ikasketa aktiboak.
- **Lankidetzan ikastea:** beste pertsona batzuegandik eta beste pertsona batzuekin ikastea. Ikasketa sozial eta interaktiboa da, eta talde-prozesuak dira alderdirik garrantzitsuena. Lankidetzan ikasteko jardueri esker, pertsonak elkarrekin ikas dezakete, proiektuetan batera lan eginez. Lankidetzan ikasteko jarduerak erabiliz gero, bakarkako ikasketaren eta ikasketa kolektiboaren arteko oreka egongo da.
- **Analisi kritikoa eta hausnarketa:** prozesu horren bidez, pentsamendu kritikoa lotutako gaitasunak garatzeko eta erabiltzeko bultzada eta laguntza ematen dute irakasleek. Analisi kritikoa eginez gero, azalpen errazak ez dira nahikoa izango norberarentzat eta auziak modu konplexuagoan aztertuko dira. Kontzientzia kritiko eta soziala osatzeko funtsezko zatia da, eta, beraz, hiritar-heziketaren ezinbesteko alderdia. Analisi kritikoa eta hausnarketa aldi berean egin behar dira; izan ere, beharrezkoak dira jakintzen eta esperientzien arteko lotura ulertzeko; errealitatearen eta teoriaren arteko zubiak sortzeak zentzua ematen dio ekintzari, eta alderantziz. Era berean, hausnarketak funtsezko eginkizuna du emantzipazio-jabetze prozesuan, hau da, metakognizio izeneko prozesuan. Philippe Meirieuaren iritziz (1998, 117. orr.), jakintzaren transferentzia lantzeko modu bat da ikasketa-prozesua gainbegiratzea eta kanpotik zailtzearen jartzea, beste ikasle batzuen eta irakasleen laguntzarekin.
- **Curriculumaren garapen moldagarria:** ikasleen premiei erantzuten dieten ikasketa-esparruak sortzea da haren helburua. Hortaz, ez dira moldatu ezinezkoak izan behar; ordea, behin eta berriro ebaluatzea eta etengabeko

aldaketak egitea da ezinbesteko baldintzetako bat, hiritar-heziketaren esparruko irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren arloan ideia berriak sortu ahala.

- **Ebaluazioa:** prozesu horren bidez agerian jartzen da hobetzeko gogoarekin egin dena. Ebaluazioan ez da egindakoa bakarrik ageri; hobeto egin daitekeena ere azaltzen da. Hori dela-eta, hausnarketa-eta ekintza-prozesua da. Xedeak, helburuak eta asmoak ezarri, parte-hartzaileak aukeratu, datuak bildu, aztertu eta zabaldu daitezke prozesu horren barruan. Bestalde, garrantzitsua da ebaluazioak prozesu gisara duen zentzua kontuan hartzea, ez baita azterketa-puntu zehatz bat; aitzitik, aurrera egiten den neurrian ere kontuan hartu behar da, hau da, gomendagarria da proiektua abian dagoenean ebaluazioa egitea. Arrazoi horregatik beragatik, hasierako ebaluazioa, etengabekoa eta amaierakoa proposatzen ditugu. Horrela, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eragiten duten alderdien xehetasunik ez da galduko, eta ikaskuntza esanguratsua lortuko da.

Alde horretatik, Edgar Morinek (2001) garatutako pentsamendu konplexuaren ideiarra hurbiltzen da hiritar-heziketak gehien gomendatzen duen **metodologieta-ko** bat. Pentsatzeko modu horri esker, aldi berean ikasten dira testua eta testuingurua, izakia eta ingurunea, lokala eta globala, hainbat dimentsiotakoa, baldintza objektiboak eta subjektiboak. Horretarako, eztabaidagaiak erabiltzea gomendatzen da, hau da, hainbat iturritako informazioa batzeko aukera ematen duten gai eztabaidagarriak erabiltzea, informazio hori alderatzea eta ikuspegi ezberdinak integratzea, eta, horren bidez, batasuna eta ugaritasuna lortzea (Berg, Graeffe eta Holden, 2003).

Hurbilpen teoriko eta metodologiko horri kritikak egin zaizkio. Hemen aipatuko ditugun biak dira gehien errepikatu direnetakoak:

- Zenbait ikerlarik diote batzuetan ikaskuntzaren alderdi experimentalari ematen zaiola garrantzia eta ikaskuntzaren emaitzak ahazten direla (Ross, 2003).
- Bestalde, hiritar-heziketari buruzko eztabaidaren zati bat, edo, hobeto esanda, gizabide-heziketa deiturikoa, neutraltasunaren eta beligerantziaren kontzeptuetan oinarritzen da, eta kontzeptu horiek dituzten aldagaietan (Trilla, 1995).



5.

Bideko hainbat
mugarri



Cogan eta Derricotek sortutako **XXI. mendeko hiritartasunaren zortzi ezaugarrien** sailkapenetik abiatuta, ikerketa honetan bederatzi irizpide ezarri ditugu. Ikertu beharreko **hezkuntza-esperientziak aukeratzean**, hiritar-heziketako alde teoriko nagusiak biltzen dituzte irizpideok.

1. Gaiekin lotutako alde teorikoak integratzen ditu.
2. Balioei buruzko heziketa gehitzen du.
3. Ekintzarako gaitasunak gehitzen ditu.
4. Parte-hartzaileei arlo honetako esperientzia praktikoez gozatzeko aukera ematen die.
5. Esperientzia kudeatzeko eta kontrolatzeko lanetan parte-hartzea errazten du.
6. Hainbat eragile sozialek (ikasleak, GKEak, erakundeak, familiak) antolatua da.
7. Baztertzeko-arriskuan dauden kolektiboen (gutxiengoak, pertsona ezinduak, hirugarren adina...) parte-hartzea errazten du.
8. Gutxienez, bi urteko gauzatze jarraitua behar du.
9. Beste taldeek esperientzia honetatik ikas dezakete.

Irizpide horiekin, honako **hezkuntza-esperientzia** hauek aukeratu dira EAEn eta Nafarroan, alor horretan egiten ari den lana sakonago ezagutzeko.

- a. *Aldatzeko pentsatu*: Gasteizko Jesusen Bihotza ikastetxean gauzatutako esperientzia. Eskola-curriculumean txertatutako hiritar-heziketako proiektu bat abiatzea da helburua.

- b. *Gure munduko protagonistak gara, Donostiako San Ignazio Ikastetxea:* bigarren hezkuntzan hiritartasun globaleko proiektu batetik abiatuta, zentro-proiektu baten bidez elkartasuna lantzen duen ikastetxe baten esperientzia.
- c. *UNICEFeko haur eta gazteen aholku-batzordea:* UNICEFek lehen hezkuntzako ikastetxe batean eta boluntario gazteekin garatutako parte-hartze esperientzia.
- d. *Lamiako eskola publikoa:* ikastetxe hori hezkuntza-komunitate modura dago eraturia eta eskarmentu handia dauka familien parte-hartze eta lankidetzan.
- e. *Sestaoko La Salle:* memoria historikoa berreskuratzeko UNESCO eskola-sareko ikastetxe baten esperientzia.
- f. *Opre Roma. Kaledor-Kayikó elkarte:* ijitoen eskolatzea hobetzeko esperientzia.
- g. *Eskolako 21 Agenda Samaniego ikastetxe publikoa:* hezkuntza-komunitatea (ikasleak, irakasleak, irakasleak ez diren langileak, familiak) inplikatzeko duen ingurumen-hezkuntzako esperientzia.
- h. *Altzako garapen komunitarioko plana. Donostiako Udala.* Donostiako auzo horretan gauzatzen den garapen komunitarioko plana.
- i. *Osaginez:* Osaginez elkarteak garatutako osasun- eta hiritar-heziketako esperientzia.
- j. *Gauekoak. Gasteizko Udala:* gazteentzako aisiako esperientzia, Gasteizko udaleko gazteria-sailak eta udalerriko hainbat elkartek elkarrekin antolatua.
- k. *Gernika-Lumoko bizikidetzaren plan integrala. Gernikako Udala eta Hazi sarea:* Jean Paul Lederach-en ikuspegiari jarraitzen zaien diagnostiko parte-hartzaileko esperientzia.
- l. *Parte Hartze Sozialeko Belaunaldien arteko Foroa. Nafarroako Unibertsitatea:* belaunaldien arteko esperientzia, gazteen eta adineko pertsonen artean herritarren eskumenak garatzeko.

Ondoren, gure testuinguruan hiritar-heziketako praktiken ondorioz egiaztatu ditugunak.

5.1. Hiritar-heziketa, ibilitako bidetik abiatuta

Ikerketa honetan, Europako ikerketetan aurkezten zen moduan, egin beharreko lehenengo egiaztapena hauxe da: hiritar-heziketarekin **lotutako kontzeptu, gai eta terminologia asko** daude (Birzúa, et al, 2005). Erabilitako metodologia dela-eta, egoera hau proiektuetan islatzen da: giza eskubideak (UNICEFeko haur eta gazteen aholku-batzordea), ingurumen-hezkuntza (Samaniego ikastetxea), osasuna eta rol maskulino eta femeninoen azterketa (Osaginez), nortasun kulturalaren eboluzioa (Opre Roma), tokiko historia (Sestao), parte-hartzea (Gauekoak; Altza, Lamiako, Gernika, Iruñea) eta globalizazioa (Piensa para cambiar eta Gure munduko protagonistak gara), besteak beste.

Aztertutako proiektuek **ageriko helburu kognitiboak** egin ohi dituzte, eduki horiekin edo ezagutza teorikoekin lotuak. Bestetik, eta Europako bestelako hezkuntzako ikerketa eta proposamenekin alderatuta, aztertutakoetan, **esparru instituzional politikoaren ezagutzari ekiten dioten proiektuen** (politika, legeak, instituzio publikoen funtzionamendua) **gabezia** nabari da. Gai hori hainbat erakundek hiritartasunerako hasierako hurbilketa batean gomendatu zuen (Birzea et al, 2005; Europako Kontseilua, 2001b; UNESCO, 2005), baina orain arte gure inguruan egindako praktikan ez da azaldu.

Bestalde, **gizartea hobeto ulertzeko** asmoa behin eta berriz agertzen da. Helburu horrekin, gaur egungo hainbat gairi buruz kritikoki eta sistematikoki pentsatzea indartzen da: **kulturen elkarbizitza, aniztasun eta pluralismoarekiko interesa, ingurumenaren babesa, rol-ezberdintasunak eta familiako arduen banaketa, besteak beste**. Metodologia horiek honako trebetasun eta gaitasun hauek indartzen dituzte: ulertzeko sentsibilitatea, elkarrizketa eta erantzukizun pertsonala (proiektu global eta nazionalen dagokienez, makro mailan; eguneroko bizimoduko akordio pertsonalen osagai gisa, mikro mailan).



Aldatzeko pentsatu, Gasteiztik hiritartasun globala.

Jesusen Bihotza Ikastetxea

1999. urtean, Gasteizko Jesusen Bihotza ikastetxeak hezkuntza-esperientzia bat abiatu zuen, ikasleak Iparralde-Hegoalde harremanen inguruan sentsibilizatzeko. *Cambia el sur de tu coco* deitzen zen esperientzia, eta Arabako GKEen Koordinakundeak eta Hezkuntza Sailak bultzatu zuten, gazteak Hegoaldeko Herrietako egoeraz ohartarazteko.

Bigarren hezkuntzako ikasleak errealitatearen irakurketa eta analisi kritikoan heztea zuen helburu esperientziak, metodologia sortzaile eta parte-hartzaileekin, jakintza-alorren aniztasuna eta zeharkakotasuna oinarri harturik. GKEek gaiak, egokitutako materialak eta irakasleen lankidetzak proposatzen zuten. Ikastetxeak bigarren hezkuntzako hirugarren mailako ikasleekin jartzen zuen martxan proiektua.

Lehenengo proiektu horren ostean, eta sortutako interesari esker, aldatetako burutu ziren, urtero, gaur egun DBHko lau ikasturteak hartzen dituen proiektu

global bihurtu arte. Bestalde, ikasgai gehienak hartzen dituen jakintza-alorren arteko eta zeharkako lan-eredua da. Ikastaro bakoitzak gizarteko gai eta errealitateak jorratzen ditu, ikasleengandik hurbilen dagoen errealitateetik hasita eta urrunago dauden gizarte-errealitateetara doan jarraikortasunari eutsiz.

- DBHko 1. maila: *Handitu zure mundua*. Giza eskubideak lantzen dituzte.
- DBHko 2. maila: *Jantzi bidezko arropa*. Bidezko merkataritza, haurren lana, esplotazioa lantzen dute.
- DBHko 3. maila: *Ikusi zer garen*. Norberaren elikadura aintzat hartuta, esparru horretan munduan dagoen egoera aztertzen dute: globalizazioa, multinazionalak, etab.
- DBHko 4. maila: *Aldatu zure buruko hegoaldea*. Hurbileko errealitateetik eta hegoaldeko herrien ikuspegitik abiatuta, topikoak aztertzen dituzte, eta aldatu nahi dutena bilatzen.



Urte hauetan, proiektua sendotu egin da, eta lau proiektuei izen generiko bat eman zaie: *Aldatzeko pentsatu* (Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzako maila guztietan garatutako jakintza-alor anitzeko eta zeharkako lan-prozesu baten izendapen globala).

Bost irakasleko talde batek koordinatzen du proiektua, ikasgai eta maila guztietako 36 irakasle eta kanpoko aholkulariekin elkarlanean. Lehenengo fasean, talde koordinatzailea irakasleekin elkartzen da. Aurrez, hausnartzeko materiala prestatzen du eta, programazio-lanak, ekin-tzen zehaztapena eta sistematizazio eta ebaluazioa koordinatzen ditu. Horrela, proiektua prozesu gradual bihurtu da. Ikastaroaren iraupena eta lantzen diren gaiak zein diren zehaztu eta aste edo hilabete batzuetako ekintzak eta programak egiten dira prozesu horretan.

Denbora luze eman zaio unitate didaktikoak diseinatzeari, ikasgai bakoitzaren curriculum-edukietan sakontzeko asmoz. Horri esker, lehenengo ekintzak egin eta gero, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren barruan kalifika daitezke, gai bakoitzean programatuta dagoen bezala. Ikastetxearen eguneroko bizitzan bestelako gaiak eta lan egiteko moduak integratzeko helburua duen talde-lana da.

Aplikaturako metodologia, funtsean, sortzailea eta parte-hartzailea da. Ikasleengandik hurbilen dagoen errealitatek urrunen egon daitekeen baina arrotz ez zaienera mailakatzen dira ekintzak. Lehenengo fasean ikerketa bat proposatzen da hurbileko errealitatea ezagutzeko; ondoren, bigarren fasean, mota honetako galderetan trebatzeko: Zer dakigu urrun ditugun errealitateez? Nolakoak ote dira Hegoaldeko herrialdeak, han bizi den jendea? Zein dira haien historiak, itzaropenak, kezak...?

Ikasle bakoitzak bere iritziak eta hausnarketak azaltzeko bideak zabaltzen saiatzen da, intelektualtasuna lehenengo planoan egon ez dadin. Era berean, talde-lana eta lan kooperatiboa hobetsi da, lan individual eta lehiakorren gainetik. *Aldatzeko pentsatu* proiektuak hausnartzera, ikertzera eta gaur egungo gaien gainean (elikagai transgenikoak, kirol-markak, hainbat herrialdetako irakaskuntza, etab.) iritziak trukatzera ohitu ditu ikastetxeko irakasleak eta ikasleak.

Mila esker Jesusen Bihotza ikastetxeko Pablo Berozperi, eman digun laguntzagatik.

Lehen azaldu bezala, konplexuagoak diren gizarteetan beharrezkoa da **nortasunaren** gaia jorratzea. **Bakoitzaren nortasunaren identifikatze eta aitortze prozesua eta bestelako nortasunak dituzten pertsonetikiko elkarbizitza** eskatzen duten nortasun hibridoak eratuz doaz gaur egun. Aniztasunaz eta elkarbizitzaz mintzatzean argi eta garbi sortzen den erronka da. Aztertutako kasuak erakusten duen moduan, gure gizartearen aspalditik dauden nortasunetatik eta esperientzietatik ikas dezakegu. Nortasunari buruzko gai honek estereotipoei buruzko lan bat eskatzen du, kultura gauza bizi bezala ikustea, gizarteko kide guztiek landu beharrezkoa, kultura jakin batekoek zein harekin bizi direnek.

Baina nortasunak eta identifikazio pertsonalak beste ikuspegi bat dute. Izan ere, **identifikazio pertsonaleko** sentimendua, proiektu baten alderdi den aldetik, hezkuntzako proiektu eta prozesu hauen garapenerako alde eraginkor bat da. Elementu hori hiriko prozesuetan parte hartzeko funtsezko alderdia ere bada.



Opre Romá, Ánimo Gitano. Kale dor Kayiko elkarte, Bilbo.

Kale dor Kayiko (KDK) elkartearen proiektua da Opre Romá, ijitoen eskolatzeari hobetzeko eta kolektibo horretan dagoeneko existitzen den eskola-arrakasta erakusteko sortua. Helburu horrekin erabaki zuten 2000. urtean ijitoen arteko eskola-arrakastaren saria sortzea, lehenengo eta goiko mailetatik. Sari hori, BBKko Gizarte Ekintzaren laguntzari esker, aldatu egiten da, eskola-mailaren arabera. Erloju bat edo ordenagailu eramangarri bat izaten da saria, baita eskola-materiala erosteko diru-kopuru bat ere (60 euro). Baina, batez ere, sariaren banaketa aukera bat da urte osoko lana erakusteko, ikasleen, familien eta

irakasleen ahaleginak indartzeko eta gizarteari mezu positibo bat bidaltzeko.

Proiektuak eskolatzeari nabarmentzen du, hiru ardatz osagarri hauetako lanetik abiatuta: eskola, haurrak eta familia. Beharrezkoak dira guztiak; izan ere, helburua da haurrek eskolan parte-hartzea, familiak ere eskolan parte-hartzea eta ikastetxeak komunitatean parte-hartzea. Elkarrekin hiru ardatzak bateratzen ditu, alde guztiak elkarri hurbiltzeko eta elkar ulertzeko.

Kale dor Kayikoko hezitzaileen lan egiteko modua kolektiboetara egokitzen da. Eskarmentu handia daukate irakasleak



trebatzen eta laguntzen. Gainera, ADARRA pedagogia-kolektiboarekin, irakasle ijitoen elkartearekin eta Ijitoak Sustatzeko Euskal Kontseiluarekin elkarlanean aritzen da.

Eskolaren eginkizuna erakustea da famuliekiko erronka nagusietakoa. Hainbat estrategia erabiltzen dira eguneroko harremana sortzeko eta prozesuari laguntzeko: elkarrizketa informalak –kafe bat hartuz– proiektua azaltzeko, telefono-deiak, bisitak azoketara edo etxeetara prozesuaz mintzatzeko, etab. Beste baliabide garrantzitsu bat da eskolatzearen alde dauden familia ijitoen eredia. Oro har, harremana humanizatzea eta eguneroko bizitzan inplikatzeko da Kale dor elkartearen asmoa, baina ikuspegi profesionaletik.

Ikasleekiko lana prozesu erara antolatzen da, zenbait mailatan. Bigarren hezkuntzako lehenengo mailatan, asteroko tutoretzak egiten dira. Bigarren zikloan, garrantzitsuak dira praktikotasuna eta ikasketa eta lanerako orientazioa. Etapa horretan, lehenengo zikloa gainditu duten ikasleekin talde-ekintza gehiago egiten dira, autonomiaren garapena lantzen da. Hala, estrategiak bilatzen dira gazteak elkartera bere kabuz hurbildu eta han lekua izan dezaten. Kasu horretan, irakasleek jarraitzen dute taldearekin harremanetan, baina gauzak errazten laguntzeko.

Nerabezaroa garai inportantea da. Izan ere, tradizioz, ezkontzeko adina zen, eta,

ondorioz, neska-mutilek ardura berriak hartzen hasten ziren. Gaur egun, ezkontzeko adina atzeratu denez, ez dute ardura hori hartzen, eta ijitoen ohiko hezkuntza ez da eredugarri haientzat. Hori dela eta, kasu askotan, familiak tresnarik gabe geratu dira, ijitoen belaunaldi bat beren nagusiak ez bezala bizitzen hasi baita. Beraz, nerabezaroa eta hezkuntza-ildoak eraberritu egin behar dituzte. KDK saiatzen da helduei eta nerabeei lan horretan laguntzen. Horrenbestez, asoziazionismoa sustatzen ari da, gazteek bere iritzia adierazteko eta sormena garatzeko modu emankor eta hezigarria baita. Gazteekiko lana lau gai-motaren inguruan antolatzen dute: ikasteko motibazioa eta adorea; gatazken konponketa; ikasteko trebeziak eta tresnak, eta, azkenik, ijito-nortasuna eta auto-kontzeptua.

Beste gai garrantzitsu bat da KDKko hezitzaileen etengabeko prestakuntza, beren lan-gaitasunak indartzeko. Horretarako, tutoretza-eskuliburu bat egiten ari da, oinarri eta erreferentzia-gida moduan erabiltzeko.

Laburbilduz, proiektu konplexu bat da, ijitoek eskolan eta gizartean parte-har dezaten sortua, beren kultura-nortasunaren harrotasuna aintzat hartzen duena.

Kale dor Kayikoko Gizarte zein Hezkuntza Esku-hartze Saileko Zuzendaria den Juanjo Lozanori eskerrak ematen dizkiogu, eman digun informazioagatik.

Hautatutako kasu gehienetan, **alderdi pertsonalak** garrantzi handiagoa dauka. Hala, aztertutako elkarrizketa eta dokumentuetan gaitasun pertsonalen garapena aipatu da konpromiso sozial eta etikoa lortzeko edo hobetzeko oinarri gisa.

Ikastetxeetako proiektu gehienek **ikasleen garapen pertsonala** dute helburu, eta hiritar-eskumenetako hiru osagaiei dagozkie: ezagutzak, balioak eta gaitasunak. **Proiektu komunitarioek**, ordea, **gaitasun pertsonalak** azpimarratzen dituzte. Proiektu batzuek ez daukate eduki kognitibo espezifikorik; prozesutan oinarritzen dira. Ikuspegi horretatik, jardunbideek hezkuntza-egiturak osatzen dituzte, hau da, hiritar-eskumenak garatzeko laborategiak. Elkarrizketatutako pertsona guztiek jarrerak eta gaitasunak (**irekitasuna, ezberdintasun kultural eta sozialekiko begirunea, zintzotasuna, konfiantza, konpromisoa**) nabarmentzen dituzte proiektuetako helburutzat:

- *“Bizitzeko modu bat eta jokabide batzuk sortu nahi dira ikasleengan.”*
- *“Ingurumena errespetatzea eta zaintzeko sentsibilizatzea.”*
- *“Munduan beste errealitate batzuk daudela ohartaraztea ikasleak.”*
- *“Besteen eskubideekiko elkartasuna eta begirunea garatzea.”*
- *“Aukeratzeko askatasuna hobetzea.”*
- *“Ikasleen burua irekitzea eta bizi diren gizartean parte hartzeko jarrerak eta gaitasunak garatzea.”*

Helburu espezifikoen artean, **ahozko eta idatzizko komunikazioarekin** lotutako zenbait **oinarrizko gaitasun** (ulermena, testuen adierazte eta komunikazioa, jendaurrean hitz egitea, adierazten jakitea, etab.) dituzte aztertutako proiektu askok. Parte-hartzaileen jabekuntza-prozesurako lagungarriak dira trebakuntza horiek.



Iraunkortasunean hezi: Eskolako 21 Agenda. Samaniego Ikastetxe Publikoa.

Garapen iraunkorarekin konprometitu-tako hezkuntza abiatzeko aukera bat da ikastetxeen Tokiko 21 Agendetan parte-hartzea. Honela islatzen da Eskolako 21 Agendako helburuetan: Gizakiak, gizartea eta -ingurumenaren arteko harremanak hobetzea eta herritar trebeak eta arduratsuak heztea, bizi- eta ingurumen-kalitatearen arteko oreka dinamikoa lortzen edo bermatzen indibidualki edo kolektiboki inbertitzeko irrikaz dau-denak.

Testuinguru horretan, ikasleek parte-hartzeko foro bilakatzen dira ikastetxeak, Hezkuntza-komunitateak eskola-iraunkortasuneko adierazleak adosten ditu ikastetxeetan, helburu nagusiak ezartzen, arazo batzuk lehenesten beste batzuen gainetik, ekintzak antolatzen, aplikatzen eta ebaluatzen, eta emaitzen berri ematen du. Bestetik, eskolaren ingurunea gainditzeko duen esperientzia bat da, bi kanpo-ekintza hartzen baititu: ondorioak udalbatzara eramatea eta hiritarren partaidetza-foroan esku-hartzea.

Duela hamar bat urte Tolosako Samaniego ikastetxean ingurumena ikasleekin lantzea erabaki zuten, esparru horretan antzemandako beharrak zirela eta. Une hartan, Eusko Jaurlaritzako Ekoeskola proiektuan parte hartu zuten. Orduan, ingurumen-batzorde bat eratu zen. Han elkartzen ziren irakasleak, familiak eta ikasleak. Borondatezko lan

hari esker, ikastetxeko Ingurumen Batzordea sendotu egin zen.

Dena den, 21 Agendan parte hartzen dutenetik, antolakuntza aldatu egin dute, eskakizun berrietara egokitze alde-ra. Orain hiru osagai nagusi dituzte: eskola-ingurunearen kudeaketa iraunkorra, curriculumaren eraberritzea eta komunitatearen parte-hartzea. Eskola-ingurunearen kudeaketa iraunkorrean, hainbat gai lantzen dituzte. Curriculumaren eraberritzearen bidez, honako hauek garatzen dituzte: parte-hartzea, jakintza-alorren artekotasuna, kudeaketa demokratikoa, gizarte-ingurumeneko arazoaren azterketa, elkarbizitza (ikastetxeko giroa), talde-lana (lankidetz), helburu eta metodologiaren koherentzia, kalitatea eta giza garapena. Globalki lan egiten dute, ingurumenari eragiten dion guztia aintzat hartuz (zaborraren sailkapena, energia-kontsumoaren murrizketa eta lantokira joateko garraio-sistema, besteak beste). Azkenik, komunitatearen baliabideen aprobetxamendua, desberdintasunen konpentsazioa eta Tokiko 21 Agendako partaidetza jorratzen da parte-hartze komunitarioan.

Aipatzekoa da Samaniego ikastetxeko proiektuan ikastetxe osoak hartzeko duela parteparte-, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, batez ere, 3. mailatik aurrera. Hala ere, lehen eta bigarren mailako



txikienean partaidetza ez da sistematikoa. Bestalde, proiektuaren aplikazioaz arduratzen den kolektiboan denetarik dago: gurasoak, administrazio langileak, irakasleak, ikasleak eta ikastetxea errealitate hurbilagoko ikastetxe bihurtu nahi duten pertsona guztiak, komunitatean integratuagoa, parte-hartzailea, plurala, kritikoa eta osasungarria. Hau da, hezkuntza-komunitate osoa.

Hala, parte hartzeko modu egonkor eta antolatua eratu da, bi mailatan lan egiten duena: batetik, herrian, hiritartasunaren esparruan, eta, bestetik, ikastetxearen esparruan, barne-kudeaketan. Egingdako proposamenak aintzat hartzea lortu dute, erakundeen arteko (CEIDA;

Udala, bestelako zentroak) elkarlanaari eta administrazioaren jarrera irekiari esker. Bestelako lorpen garrantzitsu batzuk ere erdietsi dituzte, hala nola, garraio bide publikoa ikastetxeraino heltzea, ibilgailuak konpartitzea edo bizikleta garraio bide modura erabiltzea.

Hori dela-eta, jarrera-aldaketa prozesu geldoa den arren, neurri batean, ikastetxean parte hartzen duten pertsona guztiak ingurumenarekiko sentsibilizatu eta ingurumenaz kezkatzen direla esango genuke.

Mila esker Arantza Iruretagoienari eta Samaniego Ikastetxeari, eman diguten informazioagatik.

Hainbat mailatan, helburu eta prozesu moduan, **bizitza komunitarioko inplikazio pertsonalaren beharra** da proiektu askok sustatzen duten elementu nagusia.

Hala ere, **alderdi soziala** ere agertzen da, bigarren mailan bada ere, proposamen guztietan. UNESCOren hezkuntzako laugarren zutabeari (elkarrekin bizitzen ikastea) dagokio alderdi soziala eta aurrekoaren osagarri beharrezkoa da, gaitasun pertsonalen aplikazio praktikoa ahalbidetzen baitu. Aztertutako esperientzietan, hainbat ikuspegirekin agertzen da. Oro har, horrelako gaitasunei mesede egiten diete heziketa formal eta ez-formaleko prozesuek, kolektiboen arteko elkarlanaren garapenean oinarritzen baitira.



Komunitatearen garapena. Altxa Plana, Donostia.

Herritarrek parte-hartzeko proiektua da Altxako Garapen Plan Komunitarioa, eta Donostiako auzo horretan gauzatzen ari da. 1960ko hamarkadan oso hazkunde azkarra izan zuen auzo horrek. Auzo-elkarteen mugimendua (beren arazo eta beharrei aurre egiteko sortua) indartsua da. Hala ere, azken urteotan, egungo boluntarioen ordezko belaunaldirik ez dela ageri nabari da.

2002. urtean, garapen komunitarioaren gauzatzea proposatu zuen Udalak eta lehiaketa publikoa zabaldu zuen, prozesuaren ardura hartuko zuen talde tekniko bat antolatzeko.

Ikerketa-ekintza-partaidetza metodologia erabili dute, komunitateari eman nahi zitzaizkion helburu, estilo, lan-eritmo eta protagonismoarekin bat egirik. Herriak eta komunitateak beren errealitateaz jabetzea eta kolektiboaren mobilizazioaren bidez hobekuntza sozialak lortzea da metodologia horren helburua. Hauexek ditu ezaugarriak: taldeak, prozesuaren oinarri; taldeen aniztasuna, ikerketa-ekintza-partaidetza talde bakoitzari laguntzeko gai diren pertsonen garrantzia eta herriarekiko konpromisoa.

Garapen Komunitarioko planen aplikazio metodologikoarekin bat egiten du prozedura horrek. Plan hori lau fase haue-

tan zehazten da: diagnostikoa, plangintza, gauzatzea eta ebaluazioa.

Diagnostikoaren fasea bete da, batik bat, elkarteei eta eskualdeko profesionali egindako elkarrizketa pertsonalizatuei esker. Alabaina, egituretan eta elkartee-tan parte hartzen ez duten pertsonak baina beren iritzia adierazteko interesa dutenak sartzen saiatu dira. Haientzat ere komunikazio-kanalak ireki ziren.

Nabarmentzekoa da hain talde ezberdinak izanagatik eta, askotan, kontrako interesak edukiagatik, harrera-, entzute-, topatze- eta begirune-jarrera izan dela lanaren oinarri. Portaera horri esker, auzoan eta Udalean onartutako proiektua garatu ahal izan da.

Horrela, bada, ibilbideak itxaropen handiak sortu ditu. 2004ko martxoaren amaieran egindako tailer batekin finkatu zen lehenengo fasea. Tailer horretan, politikariak, teknikariak, elkarteetako ordezkariak eta herritar arruntak elkartu ziren, egun bateko lan-saioan. Hiri-gintza, mugikortasuna, gazteria... gaiak jorratu zituzten, elkarrekin, eta etorkizunerako urratsak sendotu.

Mila esker Altxako Garapen Plan Komunitarioko lantaldeari eta Donostiako Udaleko Auzoak eta Herritarren Partaidetzako departamentuari, eman diguten laguntzagatik.

Metodologia

Metodologiak hurbil daude konplexutasunaren paradigmatic, non gizabanakoen elkarreraginak batasuna eta aniztasuna sortzen duen, nortasun konplexu berriak sortzen diren lekuan elkarreragiten duten iritzi eta ideien ulermenean oinarriturik (Luengo, 2001; Morin, 2001).

Prozesu-mota horiekin lotzen dira honako jarduerak: **talde-lana, gatazken konponketa, eztabaida, aurkezpenak prestatu eta egitea, role playing-a, hezkuntza-ikerketa**, etab. Ikastetxeetan metodologia aktiboek bideak irekitzen dituzte “ikasleek beren iritziak eta ondorioak adieraz ditzaten”.

Talde elkarreragileen bidezko lana ere sustatzen da. Talde horietan, helduek (irakasleak eta senideak) eta berdinaren arteko taldeko beste hainbat jendek hartzen dute parte.





Gure munduko protagonistak gara. Loiolako San Ignazio Ikastetxea, Donostia.

Denbora dezente da San Ignazio ikastetxean lankidetzeta eta elkartasuna lantzen direla une jakin batzuetan: Ghandiren heriotza oroitzen duen bakearen aldeko ekintza bat; 'ogitarteko solidarioaren' eguna (ikasleek eta irakasleek patioan erositako ogitarteko bat jaten dute, ikastetxean bertan, eta diru hori garapenerako lankidetzeta-proiektuetarako ematen dute); edo ikasgelan lantzeko Manos Unidasek emandako unitate didaktikoak egiten dituzte.

2001. urtean, erabaki zuten ekintza horiek ez zirela nahikoak, elkartasuna ez baita aldian aldiko ekintzekin bakarrik garatzen. Une hartan, Hegoaldeko herrietan bizi-esperientziak izandako pertsonak zeuden ikastetxean, eta **ALBOAN** gobernuz kanpoko erakunde-arekiko harremana. Horrenbestez, sei irakasleko talde bat sortzea erabaki zen, ikastetxean elkartasunarekin lotutako gaiak antolatzeko eta horietaz pentsatzeko. Elkartasun-batzorde bat eratu zen. Galdera honi erantzutea zen haren eginkizun nagusia: zer egin ikasleek –bereziki– eta hezkuntza-komunitateak –oro har– gehiago parte-hartzeko eta gizartean hiritar bezala inplikatzeko? Horretarako, **ALBOAN**en aholkuak eta *Munduko herritarrak* proiektuko materialak izan zituzten. *Gure munduaren protagonista gara*. Ikastetxeko hezkuntza-proiektu bat da. Hiru urtez jarraian

garatzea proposatu zen: irakaskuntzarako hainbat material eta baliabide dauka proiektuak, ikasgelan ikasgai guztietan lantzeko.

Horrela antolatu zen gaur egungo programa, hiru urteko lan-ildo jarraituarekin. Hasteko, eskubideen eta betebeharren arteko oreka landu zuten; ondoren, oreka hori eguneroko bizitzan txertatzeko behar den inplikazioaz eta parte-hartzeaz lan egin zuten, eta, azkenik, beste pertsona batzuekin lan egin eta bizitzeko gatazkak bake-bidez konpontzearekin lotuta zegoen hirugarren blokea.

Ikastetxean egiten den curriculum-lanaz gain, ikasturteko gaiekin lotutako kooperazio-proiektu batekin bat egiten da urtero.

Hezkuntza-prozesuan sakondu egin dute urte hauetan; izan ere, ikastetxean jakin badakite beren ekintzen oihartzuna entzun nahi dutela ikasleek. Hori dela-eta, hainbat proiektuarekin osatu dituzte ikasgelan landutako materialak, beren parte-hartzeak erantzun zehatz batekin, konponbideekin eta ondorioekin lotzeko.

Egun, elkartasuna ikastetxeko esparru guztietan egotea da helburua. Horregatik, proiektua handitu egin da eta ikasturte osoan hezkuntza-komunitateari, gurasoei, ikasleei eta irakasleei zuzendutako ekintzak gauzatzen hasi dira.



Ikastetxe barruan pertsona guztiei dago-
kien eta herritarra zer den hausnartzera
bultzatzeko **estilo solidarioa** sortzea da
helburua. Urte osoan zehar eta maila
guztietan proposatzen dira ekintza
horiek: haur hezkuntzatik (3 urte)
Batxilergora (18 urte). Horretarako, ego-
kitzapen espezifikoak egiten dira.
Lankidetzaren proiektua ere ikastetxe
osoa gauzatzen da. 1.600 ikasle eta
400 bat familiak hartzen dute parte.
Ikasleek hainbat ardura hartu dute bere

gain: batzuk, antolakuntzari dagozkio-
nak; beste batzuk, sormenaren alorreko-
ak (antzerki-obra bat, landutako gaiak
abiapuntu harturik). Irakasleengan gai
horiei buruzko ardura sortzea eta man-
tentzea lortu da, baita beren ikasgaietan
integrazteko lagungarri izan dakizkieken
beste informazio batzuk edo lan-mate-
rialak bilatzea ere.


Mila esker San Ignazio ikastetxeari,
eman digun laguntzagatik.

Metodologiaren alderdiekin jarraituz, parte-hartzaileek **ikastea** dute xede proiektuek:

- **informazioa aurkitzea**, arduradunek informazioa banatzea baino gehiago,
- **informazioa bilatzeko eta integrazteko** beharrezko gaitasunak,
- jakintza-alar eta ikasgaien arteko lankidetzaren.

Gaiaren ikuspegi orokorra izateko ezin hobea da egoera hori. Bestalde, antolaz-
tzaileek alderdi metodologikoak ezagutu eta **koordinatzeko ahalegina egin behar**
dute, ikasteko modu berri baterako bideak irekitzeko. Bestetik, motibazio- eta
inplikazio-maila handiagoa lortu behar dute prozesu hauetan parte-hartzen dute-
nek, beren ikaste-prozesuko protagonista bihurtzen baitira. Hartara, parte-har-
tzaileek esperientzia gauzatu eta berdintasun-giroan lan egin beharraz ohartu
dira, non pertsona guztiek proiektu beraren alde egiten duten (Osler, 2000,
130.orr.).

Proiektu hauek erakutsi dutenez, **lotura pertsonalak sortu beharra dago konfian-
tza-giroko elkarbizitzarik izango bada**. Taldeen artean eta talde barruan agertu
behar du konfiantzak. Batez ere, aisialdian sortzen eta sustatzen da hori.



Hartueman ez-formalak ere lotura afektiboak sortzeko une garrantzitsutzat hartzen dira. Sarritan, une horiek programatzen dira proiektuetan, baina nabaritzen da horri buruzko iruzkinen eza haurrentzako proiektuetan.




Adineko pertsonen parte-hartzea: Parte Hartze Sozialeko Belaunaldien arteko Foroa. Nafarroako Unibertsitatea

Nafarroako Unibertsitateko Hezkuntza Sailak 1996. urtetik zeraman erretiratu-elkarteetan lan egiten esku-hartze programekin. Memoria eta gizarte-trebeziak lantzeko ikastaroak egiten ziren, nagusiki, programa horien bidez, eta eskaria oso handia zen. Baina beste plangintza bati ekitea pentsatu zuen zuzendaritza-taldeak. Ardura bat zuen talde horrek: zergatik geratzen da bigarren mailan giza kapital garrantzitsu hori gizarteari eragiten dioten gai orokorretan? Beraz, programa berria proposatzea erabaki zuten, gizarte eta hezkuntzako esku-hartze ereduak garatzeko beharrari erantzuteko, eta, horren bidez, gizartean parte-hartzeko bide berriak sortzeko. Adineko pertsonak jardueren hartzaile tekniko edo parte-hartzaile baino gehiago izan zitezten nahi zuten, jarduerak zuzentzen hasteko aukera izan zezaten. Alde horretatik, adineko pertsonak moti-

batzea da helburu nagusia, hainbat belaunaldiz osatutako esparru batean beren bizi-kalitatea igo dadin, eta horren bernetako protagonista gisa goza dezaten.

Foroaren ezaugarri nagusiak jasotzen ditu gaur egun duen izenak, hain zuzen ere, Gizarte Parte-hartzeko Belaunaldi arteko Foroa. Izan ere, metodologia (foroa), parte-hartzaileak (belaunaldi artekoa) eta helburuak (parte-hartzea) aipatzen ditu.

Gaurkotasuna edo interesa duen gai bati buruzko eztabaida publikoa da foroa, eta hileroko egiten da. Elkarte, kultur erakunde edo adineko pertsonen elkarte bat arduratzen da foroa dinamizatzeaz bilera bakoitzean. Nafarroako Unibertsitateak foroa prestatzeko eta abian jartzeko prozesuan laguntzen du, Hezkuntza Gerontologia irakasgaiaren bidez. Hori dela-eta, foroaren ardura duen elkarte





unibertsitatean bertan egun batez lan egitera gonbidatzen du. Adineko pertsonak aukeratzen duten gai bat jorratzen da bilera bakoitzean, haien interesen arabera. Bilera horretan irakasgaiko ikasleek ere parte hartzen dute; hortaz, ikuspegi ezberdinak entzuten dira, eta hainbat belaunaldiren ikuspegia ematen zaie eztabaida eta oharrei. Bukatzeko, gaiari egiten zaizkion bi hurbilketa laburbiltzeko bi agiri egiten dira.

Gero, foro-egunean, esperientziadun ikasle batek moderatzaile-lana egiten du, eta agiriak prestatu dituzten pertsonetako bik ondorioak eta oharra adierazten dituzte hitzaldietarako mahai batean. Antolamendu horrek erraztu egiten du elkarrizketa eta hainbat belaunaldiz osatutako talde txikietan lan egitea, baita talde handian egin beharreko eztabaida ere. Azken solasaldian egune-

roko bizitzan jarduteko proposamenak egitea da helburua, taldearen oharra eta iradokizunak abian jartzeko. Dinamika horrek bi ordu eta erdi irauten du, gutxi gorabehera.

Elkarren arteko mendekotasuna duten belaunaldien talde bateko partaide izatearen kontzientzia sustatu du prozesu horrek parte-hartzaileen artean. Era berean, elkarrizketa eta bizikidetzaz errazteko loturak sortzeko premia ikusi da. Ideia horrekin, hurrengo aldian, adin guztietako parte-hartzaileen arteko topaketa informalak bultzatuko dira (otordua, kafea...).

Ipar Kutxak koordinatzen du proiektua, eta Nafarroako adineko pertsona guztiak parte har dezakete.

Mila esker Carmen Uрпи eta Hezkuntza Sailari eman gutun laguntzagatik.

Ikuspegi teorikoetan zein kasu praktikoetan agertzen da parte-hartzea, helburu eta metodologiatzat, hezkuntza-prozesuko gakotzat eta lortu nahi den prozesuko emaitzatzat.

Edonola ere, argi izan behar da parte-hartzea, berez, prozesu bat dela, eta pertsona guztiak ez dutela parte hartu behar indar berberarekin prozesuko ekintza, jarduera edo une guztietan. Hala ere, komunitateko proiektuetan ardura hartzen hastea eta kogestio-maila hobetoagoetara heltzea ahalbidetu behar du parte-hartze horrek.

Horrenbestez, parte-hartzea ardurak hartzea dela uste da. Gure ondoko pertsona heldutzat hartzen da, asmatzeko edo huts egiteko aukerak dituen eta, emaitza horrek (edozein dela ere), hiritartasun kritiko eta konprometitu eraikitzeke ikasbide garrantzitsuak ekar ditzake.



Haurrak ere parte-hartzaile: Haur eta Gazteen Aholku Batzordea.

UNICEF, Euskadi.

UNICEFek egindako lan guztiaren zeharkako lerroa da partaidetza-eskubidea. Lerro horrek zeharkatzen du garapenerako lankidetzak-lana, batzorde nazionalena, sentsibilizazio- eta informazio-lana eta diru-bilketa. Hala ere, batzuetan, ez da erraza izaten filosofia hori praktikan jartzea. Horregatik, eta kezka horrekin, 2002/3 ikasturtean, Bizkaiko hainbat ikastetxetako lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleek Haur eta Gazteen Aholku Batzordea abiatu zuten.

Sentsibilizazioa eta haur eta gazteentzako material ugari sortzea du eginkizun nagusietakoa UNICEF-Euskadiko Batzordeak. Askotan, alde handia egoten da materialen eta ekintzen artean, interesen eta hartzaileen ulermenaren artean. UNICEF-Euskadiko Batzordean konturatu ziren ezinezkoa zela metodologian eta diseinatze-prozesuan parte-hartzen ez zuten hartzaileentzako ekintza bat planifikatzea eta/edo material batzuk diseinatzea. Horrela, urtean zehar haur eta gazteen talde batek, gaiei buruz dituzten iritziak eta ideiak ekarriz, UNICEFekin elkarlanean jarduteko eta haren lana baliozkotzen laguntzeko ideia sortu zen.

UNICEFen lanean eta gizartean haurren benetako parte-hartzea sustatzea zen helburua. "Bakoitzaren bizitzan zein bakoitzari dagokion gizartearen bizitzan eragina duten erabakiak partekatzeo prozesua da parte-hartzea. Helburu

horrekin, proiektu-mota horrekin sentsibilizatuta zeuden eta ikasleekiko harremana errazten zuten zenbait ikastetxerekin harremanetan jarri ziren. Horrela, ikastetxeetako irakasleek esperientzia gauzatzen laguntzen dute.

Parte-hartzea borondatezkoa da. Haurren taldean, eskolaz kanpoko ekintza gisa gauzatzen dira saioak, baina eskola-orduetan. Gazteen Batzordean, ordea, eskola-orduetatik kanpo egiten dira bilerak, astean behin. Kide-kopurua ez da itxia: haurren sailean, 25 bat haurrek hartzen dute parte; gazteen sailean, batez beste, 15 lagunek. Proiektuan interesa izatea eta ikasturte osoan inplikatzaren diren pertsona konprometituak eta serioak izatea da proiektu horretan parte-hartzeko baldintza bakarra. Esperientziak erakutsi du batzuetan taldeak motibazioa galtzen duela eta, beste batzuetan, errazago inplikatzaren dela. Beraz, beren borondatez bultzatzen duten lankidetzak-proiektu serioztat azaltzen zaie prozesua.

UNICEF – Euskadiko Batzordeko teknikari bat koordinazio orokorrak arduratzen da. Jorratzen den gaia zein den, erakundeko kide guztien laguntza izaten du (adituak, sailetako adituak...). Ibilbideari begiratuz gero, ondorioztatzen da komunikabideetako arduradunarekiko lankidetzak ezinbestekoa dela. Deustuko Unibertsitateko Pedagogia Sailarekin ere



elkarlanean aritzen da. Proiektua Euskadiko Batzordean abiatu zen, eta duela bi urtez geroztik beste autonomia-erkidego batzuetan ere garatzen ari da.

Hainbat erakunde, talde eta elkarterekin elkarlanean aritzen da UNICEF. Erakunde eta elkarteekiko koordinazio hori ezinbestekoa da, parte-hartzaileei aberasgarri suerta dakien. Aipatzekoa da, adibidez, udalekin, komunikabideekin, Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zerbitzuarekin eta hainbat herrialdetako elkarteekin duen lankidetzeta.

Parte-hartzeko gaitasunetan trebatzeko, alderdi teorikoak (bereziki, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioarekin lotutakoak), balioak (elkartasuna, ardura, begirunea) eta martxan jartzeko gaitasunak –testuak ulertzeko gaitasuna (zerbait irakurtzea, ulertzea eta azaltzen jakitea), taldean aritzea, adierazten eta

ondo ulertarazten jakitea– hartzen ditu aintzat proiektuak. Horretarako, metodologia aktiboak erabiltzen dira, eta eztabaida eta gatazken konponbide baketsua praktikatzten.


Aholku Batzordeko kideak irits daitezkeenez beste haurren esku ez dauden gaie-tara eta informaziora (egunkaria irakurtzen ez dutelako edo albistegiak ikusten ez dituztelako), zenbait gairekin sentsibilizatuago daude eta elkarrizketetan gehiagotan hartzen dute parte, etxean edo lagunekin. Proiektuaren helburuetako batekin lotuta dago egoera hori: eskolatik irtetea, prozesua amaitzean eta esperientzia gauzatzen den bitartean informazio hobea eta parte-hartze handiagoa sustatzea.

Mila esker UNICEFeko Cristina Junquera-ri eman digun laguntzagatik.



Aztertutako ikerketetan aurkitu dugunez, askotan, hiritarren hezkuntza ikastetxe-
etan eskaintzen hasten denean, prozesuak denbora eskatzen du. Prozesu horrek
hainbat etapa ditu:

- **Lehenengo mailan**, irakasle talde txiki bat hiritarren hezkuntzari buruzko ikastaro batera doa. Une horretatik aurrera, gai hori beren eskoletan sartzan dute, eta esperientziak trukatzeko sare informalak antolatzen. Une horretan, ikastetxearen proiektuan oraindik ez da ageri gai hori, eta irakasleek bakartuta eta laguntza gutxirekin sentitzeko arriskua dute.
- **Bigarren mailan**, hiritar-heziketa dagoeneko curriculum nazionalean dago. Horrenbestez, irakasleei erantzun antolatuagoa eskaintzen zaie esparru horretan; esate baterako, ideiak eta esperientziak trukatzeko sareetan antolatzea. Ikastetxeetan, maila hori ikasleekin egiten diren lehen harremanetan ageri da, ikasleen kontseilua antolatzeko.
- **Hirugarren mailan**, hiritar-heziketako prozesuak ikastetxeetako curriculumetan sartzan dira; beraz, ikasketaburuek plangintzan sartzan dituzte. Gaia ageriagoa da, eta haren printzipioak publikoak izango dira poster eta kartelen bidez.
- **Laugarren mailara** iristeko, epe ertaineko prozesua behar da. Prozesu horretan, hiritar-heziketako planak ez dituzte soilik bere gain hartzen zuzendaritza-taldeak eta irakasleek, ikastetxeko kudeaketa-organo guztiek baizik. Adostutako proiektuen inguruan lan egiten duten gizarte-eragile guztien (irakasleak, ikasleak, familiak) adostasunean oinarritzen da egoera hori.



4. koadroa: Hiritar-heziketa antolatzeko ereduak.

Aztertutako kasu gehienetan, **esparru horretan interesa duten irakasle gogotsuek jarri dute abian ekimena, GKEen laguntzaz**. Irakasle horiek ikasgela edo ziklo batean hasi dituzte ekimenak, eta, gero, ikastetxeek bere egin dituzte ekimen horiek. **Ikastetxeetako zuzendaritzaren laguntza** izaten dute, eta irakasleak koordinatuta egoten dira. Bestelako eragile batzuen ikuspegiak ere entzuten dituzte irakasleek; esaterako, familia edo ikasleenak. Hori soilik gertatzen da zuzendaritza-taldeek, irakasleek eta gainerako langileek aukerak ematen badizkiete ikasleei hiritar-gaitasunak ikastetxeko eguneroko bizitzan erabiltzeko. Hala ere, azterketak dioenez, prozesua ez da hain sakona izaten eta ikasleen parte-hartzea txikiagoa izaten da (Hart, 2000). Izan ere, proiektuek metodologia parte-hartzaileei ematen diete garrantzia, baina ez dira ikasgelatik kanpo lantzen.



Iragana berreskuratuz eta zabalduz: Labe Garaietako kutxa bidaiaria. La Salle, Sestao

Ikastetxe horretan, hurbileko historiari buruzko interesa berreskuratzekeo premia sentitu zuten, baita ikasleen jatorria eta identitate historikoa lantzeko beharra ere. Gizarte Zientzietako irakasleak kon-turatu ziren Iraultza Industrialak ikastean, adibidez, ikasleek beren errealtatetik urrun ikusten zutela gai hori, eta hurbileko zenbait osagai egoteak (esaterako, Labe Garaiak), han lan egin zuten aitona batzuei buruzko oharren bat bakarrik sortzen zuela, baina sakontasunik gabekoa. Belaunaldi berriek iragana ahaztu egiten zutela eta beren herriko historia hurbilena arrotz egiten zitzaizela ohartu ziren.

Testuinguru horretan, 2003-2004 ikas-turtean, UNESCOri lotutako eskolen sareak antolatutako monumentu zahar-
ren berrirakurketan parte hartzea pro-
posatu zen ikastetxean. DBHko laugarren mailako 'Euskadiko historia eta geografia ikertzeko lantegia' hautazko irakasgaia-
ren barruan proiektu bat proposatzeko aukera zegoen. Irakasgai horrek ikasle gutxi zituen (14 lagun) eta, beraz, horre-lako proiektu bat egiteko aukera ematen zuen. Bizkaiko Labe Garaiei buruzko materialez eta lan-arloez osatutako kutxa bat egitea izan zen proposamena. Gai horrek osagai afektiboa ere badu. Izan ere, ikastetxea Labe Garaietako lan-gileen seme-alabek eta seme-alabentzat

sortua da. Gaur egun, amaitu eta lehia-
ketara aurkeztu denean, proiektuarekin jarraitzen da. Hain zuzen ere, ikastetxeko gizarte-zientzietako irakasgaietan mate-
rial didaktiko gisa erabiltzen da proiektu-
tuko materiala.

Lan horrek alderdi oso praktikoa eta aktiboa izan du, dokumentazioa bilatu eta materialak sortu ahal izateko. Horretarako, hainbat metodologia-mota erabili ziren; esate baterako, ikerketa historikoa eta trebakuntzakoa. Horrez gain, zeuden funtsak zehaztasunez begi-ratu ziren; zenbait langileren, historiala-
riren, irakasleren ahozko testigantzak jaso ziren, hitzaldietara joan, etab.

Nabarmentzekoa da materialen edukiak eta dokumentazioa aukeratzeko irakasle eta ikerlari talde baten laguntza eta aholkuak izan dituztela. Informazioa bilatzen, materialak sortzen, etab. lagun-du zuten pertsona eta erakundeen harreman-sarea antolatu zen. Esate baterako, Industria Arkeologiaren Elkar-tearekin, Gallartako museoarekin eta Al-
dundiko liburutegiarekin lan egin dute. Dokumentazioa eta umeentzako mate-
rial didaktikoak egitera eta antolatzer-a ohitzeko, Arte Ederren eta Guggenheim museotako hezkuntza-sailei ere eskatu zitzaizen aholkua. ONCeren laguntzari esker, materialak brailera itzuli ziren,



etab. Hortaz, hainbat jakintza-alor bat-
zea da esperientzia horren ezaugarri
nagusietako bat. Izan ere, eskuekin lan
egiteko gaitasun teknikoak zein norbe-
raren balioak erabili dira, baita ikasgaia-
ren jakintzak ere.

Erakundeez gain, gizon-emakume askok
ere lagundu zuten, gehienak Labe
Garaietako erretiratuak edo gaia ondo
ezagutzen zuen jendea. Pertsona horiek
utzi zizkieten argazki eta erabilitako
zurezko eredu gehienak ikasleei. Aipatu
beharra dago erretiratuak asko motibatu
eta poztu zirela, beren 'fikziozko ilobei'
erakutsi ahal izan zitelako zer izan
ziren, eta zergatik dagoen Sestaon
horrenbesteko jende nahastea, hainbes-
teko barietatea. Horrenbestez, egiaztatu
egin zen batera egindako lanak elkar
hobeto ezagutzen eta elkarrekin bizitzen
laguntzen duela. Ikasle eta irakasleen-
tzat ere motibazioa handia izan zen.
Hainbeste motibatu ziren, ezen eskolako

ordutegiaz kanpo ere lanean jarraitu
duten.

Proiektuak udalerrian eta ingurunean
duen oihartzuna eta onarpena da beste
alderdi interesgarri bat. Hori dela-eta,
proiektua aurkezteko, hitzaldi irekia
antolatu zen Sestao udalerrian. UNES-
COko Eskola Elkartuen urteroko topake-
tetan (El Ejido eta Pontevedra) ere espe-
rientziaren berri eman zen, baita
Bizikidetzeta eta Tolerantzia jardunaldi-
tan ere (Gasteiz), etab.

Beraz, esperientzia motibatzailea izan
zen; gaiari buruz gehiago jakiteko kezka
eta jakin-mina sortu zuen, eta gizarteko
bidegabekeriaren gainean kontzientziatu
zituena ikasleak, baita pertsonen arteko
eskubide-berdintasuna eragozten duten
oztopoak ezabatzeke premiari buruz ere.

Mila esker Marisa Bergóni eta La Salle
ikastetxeari eman diguten laguntzagatik.



Komunitate-esperientzietan, hiru antolakuntza-eredu atzeman dira:

- a. *Tokiko erakundeek hasitako proiektuak (esate baterako, udalek), elkarre-sareari zuzendutakoak eta, batzuetan, elkarteetan ez dauden hiritarrei zuzendutakoak ere.* Parte-hartze prozesuak errazteko edo hobetzeko esperientziak izan ohi dira, bai kontsulta bidezko parte-hartzeak (esaterako, Gernikan), edo ardura-maila handiagoetarako aukerarekin (adibidez, Altzan).
- b. *Erakunde publikoek sustatutako proiektuak, non sozietate zibilak gerora aitzindaritze bere gain hartuko duen.* Kasu horretan, erakundeek lehen esperientzia bat erraztu ahal izan dute, baina herritar-talde baten interesari eta motibazioari esker baino ezin da sortu elkarre-sarea (esaterako, Lamiakoko emakumeen elkarteak edo Osaginez elkarteak).
- c. *Gizarte zibileko talde batzuk antolatuta daude eta parte-hartzea hobetu nahi dute.* Beraz, beren etorkizuna zuzentzen hasten dira, eta herritar gisa dituzten eskubide eta betebeharrak erabiltzea pentsatzen dute. Horren ondoren, proiektuak herritar guztientzat edo talde jakin batentzat prestatzen hasten dira –esate baterako, Opre Roma proiektua (ijitoen kolektiboa) edo Gauekoak (gazteria)–.

Komunitatearekin dituzten erantzukizunen jakitun diren pertsonen erantzun aktiboa eskatzen dute hiru prozesu-motek. Pertsona horiek informatuta egon behar dute, eta erabakiak hartzeko eta eztabaida publikoan jarduteko gai izan behar dute (Espainiako Gazteriaren Kontseilua, 2005). Dirudienez, pertsona helduentzako programetan haurrentzakoetan baino **jende gehiagok parte hartzen du**, oro har. Hala ere, ikastetxean ikusi denez, esperientzia zabalak susta daitezke. Familien eta irakasleen arteko berdintasunezko harremanen bidez, hurbiltasunean eta erabakiak era parekatuan hartzean oinarritutako hezkuntza-inguruneak garatzea ahalbidetzen dute esperientzia horiek.



Gazteekin egindako proiektu bat: Gauekoak. Gasteizko Udala.

1997an, *Abierto hasta el amanecer* (*Eguna argitu arte zabalik*) proiektua sortu zen Gijonen. Gazteentzako gauera-ko aisia esperientzia berritzailea zen. Orduan, une hartan eskaintzen zenaren ezberdina izango zen zerbait egitea erabaki zuten auzoko boluntariorik ziharduten pertsona batzuek. Gazteen joera berrietara egokitu nahi zuten. Beraz, egunez baino gehiago gauetz dibertitzen diren gazteengana jotzea erabaki zuten, eta aisia sortzailea edo trebakuntzako bilatu beharrean kontsumoko aisia bilatzen zutenengana. Programa sendotu egin zen, eta beste udalerrri batzuetara zabaltzen hasi zen.

Hain zuzen ere, Gasteizen udalbatzak mozio bat onartu zuen antzeko proposamen bat garatzeko. Udaleko Gazteriaren Kontseilu batean, programaren ardura hartzeko interesa erakutsi zuten herriko aisialdiko taldeek eta gazteekin lan egiten zuten pertsonak.

Udalak ideia jaso zuen, eta baliabideak emateko konpromisoa hartu zuen. Eta Gazteria Zerbitzuak deialdia egin zuen, ezaugarri horiekin programa antolatzeko. Proposamen irekia egin zieten aisialdiko talde tradizionaleri (eskautak, parrokiak, etab.) eta gazteei zerbait eskaini ahal zieten beste elkarte batzuei (drogen aurkako kirolariak, hiesaren aurkako ba-

tzordea, kulturaren inguruko gaiak lantzen zituzten taldeak, etab.). Horrela, hainbat pertsona eta kolektibo batu ziren, une oro gazteekin harremanetan egon zitezten. Bestalde, udal egiturak erabil zitzaizketen (esaterako, gizarte-etxeak). Hortaz, programa ondo egokitutako tokietan egiteko aukera zuten.

Une hartan erabaki zen Udalak gauzak erraztu eta sustatu egin behar zituela. Teknikariak arduratzen ziren bilera-deialdiak eta -prestakuntzak egiteaz (eguneko gai-zerrenda egitea, udalean bertan baliabideak bilatzea programan jartzeko, deialdiak egitea, etab.). Gauekoak programaren lehen fasean, denbora asko eskaini behar izan zitzaion Udal barruko lanari, udaleko hainbat arloren laguntza beharrezkoa baitzen (kirol-jokalekuak, gizarte-etxea, etab.).

Gaueko 10etatik aurrera herriko elkarteek soilik kudeatzen duten gizarte-etxe bat egotea da Gauekoak programaren lorpenik handiena. Lehenago ez zen horrelako esperientziarik pentsatu, gizarte-etxeek udaleko langileak baitituzte, hango zereginak egiteko kontratatutakoak. Orain, eskaintza zabaldu egin da, Aldabetik udalaren beste gune batzuetara. Beraz, Gauekoak programak erakutsi duenez, elkarteek ardurak har ditzakete eta, horrela, administrazioak elkarteen



gainean duen konfiantza handitu egin da, baita jardueretara doazen gazteen-gan duena ere.

Dibertsitatearen aldeko lana ere nabarmentzekoa da, hainbat taldek modu integratuan parte hartzea ahalbidetu baitu. Esate baterako, ikusi da kirolean

kultura ezberdinek berdintasunean parte hartzen dutela.

Mila esker Gauekoak programako gazte-elkarteei, Pilar Abellari eta Gasteizko Udaleko Gazteria Zerbitzuari.

Parte hartu behar duten pertsonen prestakuntzaren eta trebakuntzaren menpe dago, neurri handi batean, hiritar-heziketaren kalitatea, prozesua baino lehen eta prozesuan bertan (Europako Kontseilua, 2001b; Eurydice, 2004). Hezkuntzako eragileen lana funtsezkoa da herritarren eta nortasunaren ikaskuntza eta esperientzia abian jartzeko.

Heziketa-prozesu formaletan **lan egin dutenen** iritiz, garrantzitsua da hausnartzeko edo GKEek eskainitako materialak ezagutzeko **trebakuntza-prozesuetan** edo trebakuntza-ikastaroetan parte hartu izana. Komunitateko proiektuei dago-kienez, interesgarria da lanean laguntzen duten gai jakin batzuetan (parte-hartzea, kudeaketa, etab.) **trebakuntza-ikastaroak** egin ahal izatea. Oro har, kalitatezko trebakuntza izan daiteke, baina partziala, zatikatua edo ez sistematikoa izateko arriskua du, hainbat eragilek edo erakundek eskainitako ikastaroz, mintegiz eta hitzaldiz osatutakoa.



Guztia ez da berdina izan behar; zerbait egin dezakegu. Osaginez elkarte, Bilbo.

Gurasoen Eskolan Komunitateko Prozesu Zuzentzaileen metodologiari buruzko ikastaro baten lehen maila egin zuten pertsona talde batek sortu zuen elkarte hori. Bilboko Udaleko Eskola Osasuneko Sailak antolatu zuen ikastaroa. Esperientzia hain interesgarria egin zitzairen, ezen, amaitzean, batzea eta elkarte bat sortzea erabaki zuten. Ikastaroak arrakasta izan zuen taldearentzako gune bat sortu zelako interesak eta kezkek partekatzeko. Alderdi horri balio handia eman ohi zaio, gaur egungo gurasoei oso zaila egiten baitzaie umeak hezteak; hortaz, eskertu egiten dute beren kezkek partekatzeko leku bat edukitzea, ezinegonari edo guztien esperientziei buruz hitz egitea eta alternatibak bilatzea. Eguneroko bizimoduko eszenak egitea eta dramatizatzea du oinarri Komunitateko Prozesu Zuzentzaileen metodologiak. Eszena horietatik abiatuta, parte-hartzaileek lehenago ikusten ez zituzten gauzak ikusten dituzte, nola edo hala, eta aztertu eta landu egiten dituzte. Lehen maila prozesu baten hasiera da. Parte-hartzaileei bilaketa-sentimendua eragin ohi die, eta hainbeste lagundu dien eta gozatu ere egin duten eremu horretan sakontzen jarraitzeko interesa emate.

Kasu honetan, ikastaroan parte hartu zutenek bigarren maila ere egin zuten. Horrela, gutxika-gutxika, haien arteko

konfiantza handituz joan zen, eta autonomoagoak izaten saiatzeko eta hausnarketarako gune propio bat sortzeko ideia sortu zen. Interesgarria iruditzen zitzairen bilerekin jarraitzea, elkarrekin batzea, interesatzen zitzaizkien gaietarako hausnartzeko, informatzeko eta trebatzen jarraitzeko. Gogoan izan gurasoentzako eskolaren helburua ez dela soilik errealitatea ezagutzeko, baizik eta errealitatean esku hartzea eta hura aldatzea ere. Hortaz, horri erantzuteko, *Osaginez-Crecer en Salud* guraso-elkartea sortu zuten.

Hasieran, ekimena 20 bat pertsonarena zen, baina hazi egin zen, eta gaur egun 45 bat kide ditu. Herritar autonomoak trebatzea du helburu. Bultzatzaileen iritziz, hiru mailatan aurrera egitea eskatzen du horrek:

- a. Norberari buruz hausnartzea: zer gertatzen ari zaizun jakitea, eta zergatik.
- b. Gizartea zuzentzen duten mekanismoak zein diren jakitea.
- c. Errealitatea alda daitekeela onartzea eta horretarako gaitasuna dugula ikustea.

Talde-lana da proiektuaren alderdi garrantzitsuenetakoa, erreferentzia baita eguneroko bizitzaren prozesuan. Bestalde,



arindu egiten du arazoan aurrean pertsonak sentitzen duten exijentzia-maila handia.

Haien lanak eragina du gizartean, batez ere gai bitan. Alde batetik, aldatu egiten dira, eta horrek seme-alaben hezkuntza-ren gaineko ondorioa dakar; bestetik, ikastaroak eta hitzaldiak antolatzen dituzte gainerako hiritarrentzat. Horrez

gain, interesgarria da esperientzia horren beste lorpen bat ere: gaur egungo gizartean gizonak duen eginkizunari buruz pentsatu eta hausnartzen duen taldea antolatzea lortu dute.

Mila esker Osaginez elkarteko Andreas Schäfter, Ana Grande eta Teresa Eguidazuri, eman diguten laguntzagatik.

Komunikazioa faltan dagoen osagai bat izaten da askotan, baina ezinbestekoa da proiektua ezagutzeko eta proiektuak ondo funtziona dezan.

Alde horretatik, ikastetxeek askotan azpimarratu dute proiektuek **barne-komunikazioko** prozesuak hobetzen lagundu dutela.

Komunitateko proiektuetan, berriz, **komunikaziorako hainbat bitarteko** erabiltzen dira. Informazioa hainbat bidetatik heltzen zaie hiritarrei: panelak, bileretarako deialdiak edo ‘ahoz ahoko’ prozedura tradizionala. Web orriak edo materialak argitaratzea dira proiektuaren ‘emaitzak’ aditzera emateko beste bide batzuk.

Kasu guztietan aipatzen da **komunikabide gehiagotan agertu behar lukeela informazioak, baita foro publikoetan ere**. Sariak, adibidez, komunikabideetan gehiago agertzeko aukera ematen dute.

Komunikabideetan agertze horrek bi ezaugarri ditu:

1. Alde batetik, **publikoki agertzeak proiektua agerian jartzen laguntzen du**, eta, beraz, parte-hartzaileak agertzeak eragin ona izan dezake haien autoestimuan, bereziki, proiektua zabaltzen erantzukizun handiena duten parte-hartzaileengan.
2. Bestalde, aztertutako kasuetan eta, bereziki, biztanle gazteagoekin, **komunikabideetan agertu aurretik, trebatu egiten dira, gaitasunak garatu ditzaten** (esate baterako, jendaurrean hitz egiten, gaiak aldeztu aurretik aztertzen irakasten zaie).



Elkarrekin bizitzen ikasten. Gernika-Lumoko bizikidetza-plan integrala.

Hazi sareak bultzatuta sortu zen proiektua. Sare hori Gernika Gogoratzuz Bakearen Ikerkuntza Zentroak, Gatazkak Eraldatzeko Unibertsitate Zentroak (GEUZ) eta FOMED Bitartekaritza Institutuak osatzen dute. Guztiek dute esperientzia zabala gatazkak konpontzen eta komunitatearen arloan.

Gernikak Bakearen Hiri gisa duen balio sinbolikoa eta esparru horretan bertzaile diren proiektuetan duen esperientzia funtsezkoak izan ziren proiektu pilotu hau hasteko.

Prozesu parte-hartzaileetatik abiatuz, bizikidetzara eta bakea eraikitzen hurbiltzea du oinarri proposamenak. Horretarako, Lederachek ideiak (1998) jarraitu zituen ereduak, bakea eraikitzeari dago-kionez:

Eraikuntzaren eragileak eta ikuspegiak. Gernikan hiru mailatan lan egin zen: maila politikoa (udalbatza), antolakuntza-maila (erakunde publikoak eta pribatuak) eta herritarren edo antolatu gabeko biztanleen maila.

Gaietatik arazoetara. Gaiak, erlazioak, azpisistemak eta sistemak barne hartu dituen lana proposatu zen.

Denbora. Eragileen artean lortu den adostasunaren arabera antolatu ziren faseak.

Plana egiteko, bost jarduera-fase ezarri ziren:

1. fasea. Mobilizazioa eta proiektuaren berri ahalik eta jenderik gehienari ematea.
2. fasea. Bizikidetzaren alde lehenago egin diren ekintzak ebaluatzea.
3. fasea. Bizikidetzara balioztatzea. Ingaruneko benetako arazo eta/edo gatazkak zein diren jakiteko aukera eman du.
- 4 fasea. Bizikidetzara hobetzeko egin behar diren esku-hartzeen proposamenak zehaztea.
5. fasea. Elkarrekin bizitzeko plan osoa egitea.

Plana egiteko hainbat metodologia erabili ziren (galdera-sortak, eztabaida-taldeak, edukiak aztertzea, etab). Alderdi hori oso garrantzitsua izan zen, proiektuaren helburua bikoitza baitzen: udalerrian egon zitezkeen gatazkei buruzko balioztatze parte-hartzailea egitea, eta hainbat esparrutako proposamenak jasotzea (herritarrak, elkarteak eta politika-arlokoak). Baina, horrez gain, erabilitako metodologia berriro formulatu nahi zen, beste udalerrri batzuetan berriro erabili aurretik hobetzeko.

Ikusten denez, ezarritako bi helburuak bete nahi dituen asmo handiko proiektu baten lehen faseaz ari gara. Alde batetik,



udalerrian esku hartzeko proposamen bateratuak egin nahi dira, eta, bestetik, metodologia egokitu eta etorkizuneko proiektuetan aplikatu gura da.

Mila esker Gernika Gogoratuz elkarteko Yolanda Muñoz, eman digun laguntzagaririk.

Kasu guztietan agerian geratzen denez, **heziketa-prozesu horiek balioztatzea** erronka handia da. Gehienetan, hausnarketa-prozesu bat ezartzen da ekintzak irauten duen bitartean. Prozesuaren ebaluazioa eta parte-hartzaileen gogobetetze-maila ere kontuan hartzen dira.

Samaniego ikastetxearen eskolako agenda 21ek, adibidez, honela dio: *“Hezkuntzari, testuinguruari, baliabide materialei, pertsonalei eta finantzazkoei eta emaitzei buruzko adierazleen bidez egiten da ebaluazioa. Proba estandarrak dira, eta ikastetxea non dagoen, norantz doan eta helburuetatik hurbil edo urrun dagoen jakiten laguntzen dute”.*

Dena dela, beharrezkoa ikusten da **ebaluazio sakona** egitea, hiritar-heziketaren edukiak ondo ulertu diren eta printzipioak (balioak eta trebeziak) eguneroko bizitzan erabiltzen diren jakiteko.

Hala ere, proiektuen bilakaeran zein pertsona arduradunekin egindako elkarriketetetan egiaztatzen denez, proiektuak hazten eta hobetzen ari dira. Jarduerari eta gogoan dituzten helburuari buruz hausnartzeko interesa ere badago.





Eskola bat gure komunitatean. Lamiakoko ikaskuntza-komunitatea.

Lamiakoko ikaskuntza-komunitateak sakon aztertu ditu azkeneko urteotan ikastetxe horretan erabiltzen ari ziren irizpideak. Eskolan bi hezkuntza-lerro paralelo (familiarekin, bata; ikastetxeko profesionalekin, bestea) ari zirela gartzten ohartu ziren arduradunak, eta horregatik ekin zioten azterketari. Zuzendaritzaren iritziz, bi lerroak bat egin behar ziren, hezkuntza hobea eta koherenteagoa eskaintzeko. Hortik sortu zen, bada, familiekin elkarlanean jarduteko eta haiek ere eskolako martxan aritzeko proiektua (“esku-hartze eta berrikuntza-proiektua”).

Heziketa-teknika ez-formalak erabili ziren aldeak elkarrengana hurbiltzeko. Besteak beste, auzotar guztiei dei egin zitzairen ikastetxera, kafea hartu eta literaturari buruzko mahai-inguru batean parte hartzera. Hala, bada, ikastetxeko ateak zabaldu zituzten, eta hainbat familia bertaratu ziren. Lehenbiziko ordu-erdian kafea hartzen eta egunkariak irakurtzen aritu ziren. Handik aurrera, trebakuntza-tailerrak eta -moduluak egitea proposatu zen, zenbait hizlari mintzatu ziren... Gaur egun, parte-hartzaileen nahiaren arabera erabiltzen edo aldatzen dira modulu horiek. Ebaluazioa egiten da urte-amaieran, baita hurrengo ekitaldirako urratsak erabakitzen ere. Gaur egun, hona hemen prozesuaren emaitza aipa-

garrietako bat: emakumezkoen kultura-elkarte bat sortu zen antzerki-proiektu batetik.

Ikaskuntza-komunitateak, bestalde, herrian integratzen ere laguntzen du. Garrantzitsua da hori Lamiakon, kanpoan baitaude zerbitzu gehienak (anbulatorioa, herritar-zentroa...) eta ez baita erraza jendeak auzoarekiko atxikimendu handirik sentitzea. Orain, ordea, jendeak gehiago hartzen du parte Lamiakoko bizitzan, Eskolak bultzatutako proiektuei esker.

Laneko sistema, berriz, hauxe da: berriazko proiektuak, ikastetxearen ideia orokorrekin uztartzen direnak. Oso dinamikoa eta aktiboa da eragileen jarduera. Familiak, adibidez, ikastetxeko egunero-ko bizimodura moldatu dira, ikasgelei laguntzen diete talde interaktiboekin eta badute prestakuntza-plana (irakaslearen paraleloa). Hainbat komunikazio-tresna ere jarri dituzte martxan; besteak beste, aldizkaria. Ikasleek, irakasleek eta familiekin hartzen dute parte aldizkarian, eta hezkuntza-komunitate osoaren baliabidea da.

Zenbait aldaketa egin zaizkio prozesuari ingurunera egokitzeko. Gaur egun, ahal duten heinean hartzen dute parte familiekin; bestalde, atzerriko gero eta familia gehiago dago, ikastetxeko eginkizunetan



aritzeko denbora gutxiago dutenak gehienak. Hala eta guztiz ere, partaide-tza-indizea oso handia da. Horri esker, goitik behera aldatu da ikastetxeko martxa.

Mila esker Nieves Sarachagari eta ama-taldeari, baita Lamiakoko ikastetxeari ere, eman diguten laguntzagatik.





6.

**Etorkizuneko ibiltarientzako
laguntza**

Aztertutako prozesu eta proiektuetatik ateratako **hausnarketa nagusiak** aurkeztuko dizkizuegu. Besteak beste, honako alderdi hauek azpimarratzen ditugu:

- **Gaiari buruzko interes gero eta handiagoa dago**, hainbat testuinguru geografiko eta tematikotan agertzeak erakusten duenez.
- Ohikoa izan da **proiektu pilotuetatik esperientzia sendoetara haztea**.
- **Lan-talde sendoak** daude, ekimenekin konpromisoa hartu dutenak.
- Esperientziak **eredu** bihurtzen dira **komunitateetan**. Ingurunera zabaldu direla nabaritzen da, eta bideak sortu dituztela interesa duten pertsona eta taldeek parte har dezaten.
- **Erakundeen, eragileen eta herritarren arteko sare-lana** egin da.
- Hiritar-heziketak gizartean **balioei eta nortasunari buruz hausnartzeko aukerak** ematen dituela ikusten da.
- Ikasleen edo erabiltzaileen ikuspegi tradizionala eduki ostean, orain **protagonista gisa** ari dira.
- **Guneak eta mekanismoak sortzeko premia dago, parte-hartze maila handiak** lortzeko.
- **Hainbat talderentzat balioko duten proiektuak** garatzeko interesa ikusi da.

Jarduera gehienek alde onak eta txarrak dituzte, baina egoera guztietatik atera daiteke ikasgairik, arrakasta izan dutenetatik eta porrot egin dutenetatik. Beraz, komeni da **atzemandako zenbait zailtasun** azaltzea:

- **Proiektuen lekua eta estatusa bermatzea** eskola-curriculumean zein udalerrietako edo elkarteetako agenda politikoan.
- **Ilusioa eragiten duten proiektuak** sortzea, hainbat parte-hartzailek lagun dezaten.

- **Hezitzaileen** eginkizuna aldatzea, **heziketa-prozesuak** errazten dituzten **pertsonak** izan daitezen.
- **Parte-hartze maila handien alde egitea.**
- Herritarrak proiektuekin identifikatzeko **lotura afektiboak garatzea.**
- **Herritarrak motibatzea**, aisialdian prozesu parte-hartzaileetan murgil daitezen.

Komunitate bat dago, eta inplikaturako eragile guztiek (politikariek, teknikariek, gizarte-sareak eta herritarrek) horri buruz hausnartu behar dute, eta gaur egunerako eta etorkizunerako oinarriak ezarri behar dituzte herritarren parte-hartzea izeneko esparruan. Testuinguru horretan, hezkuntza formalari eta ez-formalari egokitutako **gomendio** batzuk aurkeztuko ditugu.

A. Hezkuntza formaleko testuinguruan hiritar-heziketa eskaintzeko gomendioak

- Oso motibatuta egongo den **talde sustatzailea** antolatzea.
- **Proiektua** eta haren helburuak argi **zehaztea.**
- **Denbora** bat ematea proiektua alde **aurretik** prestatzen, ikuspegi orokor batetik.
- Irakasleak **modu espezifikoan trebatzea**, metodo parte-hartzaileekin lan egiten ikas dezaten.
- **Alderdi teorikoak, afektiboak eta herritarren gaitasunak** jasotzea.
- **Metodologia aktiboak** erabiltzea.
- **Loturak sortzea** haurren eta bestelako eragileen benetako esperientziarekin.
- **Hausnarketa pertsonaleko guneak bultzatzea**, esperientziak bateratzen laguntzeko.
- **Erabakiak taldean** hartzea.
- **Haurren iritziak** eta proposamenak aintzat hartzea.



- Tokiak, informazioa eta **proposamenak** parte-hartzaileen **adinaren arabera** egokitzea.
- **Proiektua ikastetxearen proiektua izatea**, kontraesanak saihesteko (ikastetxeko proiektua, kudeaketa-egiturak).
- Gutxika-gutxika, **parte-hartze prozesuak** hainbat mailatan abian jartzea, ikasgelatik hasi eta ikastetxearen kudeaketaraino.
- **Hezkuntza-arloko beste eragile batzuk inplikatzeko** (familiak, GKEak...).
- **Balioztatze-sistema bat ezartzea**, proiektua nola doan jakiteko eta hura hobetzeko.

B. Hezkuntza ez-formal eta informaleko testuinguruetan hiritar-heziketa emateko gomendioak.

- **Talde sustatzailea** antolatzea lanean ari diren kolektiboetako ordezkariekin. Lantalde horrek oso motibatuta egon behar du.
- **Proiektua** eta haren helburuak argi **zehaztea**.
- **Elkarrekin egoteko gune informalek sortzea**, loturak eta konfiantzazko giroa errazago sortzeko.
- **Parte-hartzaileek elkarrekin lan egiteko proiektuak bultzatzea**.
- **Parte-hartzaileen benetako esperientziarekin loturak sortzea**.
- **Hausnarketa pertsonaleko guneak bultzatzea**, esperientziak bateratzen laguntzeko.
- Gutxika-gutxika, **parte-hartze prozesuak** abian jartzea hainbat mailatan, ikasgelatik hasi eta proiektuaren kudeaketaraino.
- **Lanean ari direnen iritziak eta proposamenak aintzat hartzea**.
- **Erabakiak taldean hartzea**.
- Tokiak, informazioa eta **proposamenak parte-hartzaileen ezaugarrien eta interesen arabera** egokitzea.
- **Hurbileko komunikazioa** errazten duten gune informalek eskaintzea.



- Interesatuta dauden beste herritar batzuen **partaidetza bultzatzea** (erakundeak, familiak, bestelako kulturak).
- Proiektua **iraunkor izateko estrategiak sortzea**.
- Beste gizarte-eragile batzuekin **sarean lan egitea**.
- **Arduradunak trebatzea** talde-dinamiketarako tekniken bidez, talde-lanaren bitartez, etab.
- **Balioztatze-sistema** bat ezartzea, proiektua nola doan jakiteko eta hura hobetzeko.

Aztarna eta jarraibide hauekin bideak sortzen eta bidexka berriak asmatzen jarraitzea animatzen zaituztegu, zuek ibiltariak. Horretarako, atxiki dugun CDan informazio gehigarria aurkituko duzu, hala nola, argitalpen hau ahalbidetu duen ikerketa, erabilitako bibliografia eta aipatutako dokumentu eta aztertutako esperimentuei buruzko informazioa.